

XII. urtea - 142. zk. 2004ko urria

>GEU

GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA



CEGASA EVOLUTION

Energiaren indar bizia


BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK



LR03/AAA



LR14/C



LR6/AA



LR20/D

Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute, aipatu ekipo horiek eskatzen duten korrante intentsitate altuko beharrari erantzuna emango dion potentzia handiagoko energia.

Erronka berri honi Cegasa-k emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio handiko pila alkalinoen belaunaldi berri bat. Azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.



CEGASA
INTERNATIONAL



GEU Elkartearen ekimenez
sortua (1992)
Geu aldizkari taldeak egina,
bideratua eta kudeatua

Erredakzioa:

Pedro Asua, 2 - 3.a. - 01008
Gasteiz

Tfnoa. eta Faxa:

945 22 21 53

e-mail:

geugaste@grn.es

Zuzendaria:

estitxu breñas glz. de zarate

Aldizkari batzordea:

josune velez de mendizabal, edorta sanz,
edurne begiristain, estitxu breñas eta
david alvez

Kazetariak:

josune velez de mendizabal, edurne
begiristain, saioa fdz. de arangiz

Argazkiak:

edorta sanz

Bestelako irudiak-bilaketa:

estitxu breñas glz. de zarate, david alvez

Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:

estitxu breñas glz. de zarate

Itzulpenak:

edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri

Maketa:

patirke sanz eta david alvez

logoa:

io grafix

komikia:

iñigo sarasola

Kolaboratzaileak ale honetan:

monica navarro, haur eskoletako
hezitzaileak, maite lekue, jon zubiaur,
gerardo markuleta, kike fdz de pinedo,
david alvez, erlantz urtasun eta gamarrako
ostalaritza eskola.

Publizitatea eta Banaketa:

edurne begiristain

Publizitate arloko laguntzailea:

maite lekue

Sustapen-harpidetza saila:

edurne begiristain, estitxu breñas glz. de
zarate eta maite lekue

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)


Ale kopurua: 2.500

LG: VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau
paper berziklatuaz egina dago. Geu
aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan
adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



GEU ALDIZKARIA zure
etxean jasotzeko bidea
HARPIDETZA da.

Urte osoko kuota: **18 euro.**
(telefonoz - e-mailez)

GAIKA (7-15. orr.):

13-15

ikastolen elkarteko
xiba programa



AHORIK-AHO (16-23. orr.):



16-17

iñigo velez de
mendizabal, eibar
taldeko futbolari
gasteiztarra



20-22

nekazaritza
ekologikoa:
elkarrizketak
ardoa &
sagardoa.



7-11

haur eskolen
auzia. kronika



18-19

igor chillón,
bagare-ren arki
ekimenaren
arduraduna



23

euskaltasunean
lagun: ainara
escobar



HAN-HEMENKA (4-6. orr.):

-joseba olalderi agurra (4)

-iritzia (5)

gasteizko haur eskolen auzia

-kaleak dio (6)

haur eskolak

-araba bixotzian (6)

labraza. JON ZUBIAUR

KULTURAI SIALDIARI SO (24-35. orr.):

-AGENDA (24)

-IDAZLEEN GURPILA (25)

depende VIII. amaiera. GERARDO MARKULETA

-HISTORIA ZERTZELADAK (26-27)

Gasteiz eta Gasteaizko ermita. kike fdz. de pinedo

-ARTE TXOKOA (28-29)

musika: ORTOPHONK

-BIDAIA (30)

VIENA

-BERTAKOARI SO! (31)

ERLANTZ URTASUN historiagilearen txokoa

-ERREZETA (31)

itsas-zapo erreka bere zuku emultsio eta garaiko
barazkiekin

-GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA. GEU (32)

-GEU. ESKAINTZAK (33)

-KOMIKIA (34)

IÑIGO SARASOLA

Azala ...

Camdem-eko azoka, Londres. Joseba Olalde (Gasteiz, 1959-2004) bere argazkilaritza-ibilbidearen hasieran egindako argazkia. Camdem Institute-ean argazkilaritza ikasketak egin zituen (1982-84). Egin, Euskaldunon Egunkaria, eta hainbat fanzin, aldizkari eta disko azal, besteak beste, bere argazkiez jantzi dira urte hauetan guztietan, GEU aldizkaria ere tartean. Sariak eta erakusketak ere izan zituen lagun. Azken garai honetan argazki-liburu bat prestatzen ziharduen, amaitzeaz zuena; hitz eginda geneukan GEUn ateratzeko...

Zure omenez, Joseba, hile honetako azala, bihotzez, zuk hainbeste maite zenuen argazkiak. Ez adiorik!



argazkia: Joseba Olalde / © gorka Olalde

ez adiorik

Atsegintsu,
beti hor egon zarena,
present eta prest,
Gasteizko karriketan,
gure artean,
lagun, egitasmo eta ekimen
asko eta askoren artean,
present eta prest,
zure fintasunean,
leuntasunean,
diskrezioan murgildurik.
Begirunea,
zure izateko eran,
egotekoan,
hitz egitekoan,
irudiak sortzekoan.
Solasaldi interesgarrien emale,
entzule ona.
Kalitatezko argazkilaria,
irudi bizi, goxo eta komunikatzaileen egilea.
Eskuzabala eta ikuspegi zabalekoa
Lagunen oso laguna,
Gorkaren oso aita,...



EZ ADIORIK, JOSEBA

Gure artean,
gure bihotzean
Beti.

Geu aldizkaria

haur eskolak



GERO ETA MODERNOAGOAK GARA. ETA HEZKUNTZAN? ETA HAUR HEZKUNTZAN BATIK BAT?

Jakin badakigu, zientzia aldizkariak dioten legez, 0-3 bitarteko adinak ikaragarritzko eragina duela geroako gizakian. Bertan bizitzen diren harremanak, erlazioak eta esperientziak gure garun misteriozkoak garatzeko premia-azkoak direla. Giza harremanak ezinbestekoak dira, are gehiago adin berekoen artekoak. Baina hau guztia aurrera eramateko nolabaiteko HEZKUNTZA SISTEMA egon behar da eta geure Gasteiz hiri polit, eder, galant honek BAZEUKAN. BAZEUKAN "gure" alkate jaunak DEKRETUZ SISTEMA ALDATU DUEN ARTE, HORI BAI, BESTE HEZKUNTZA SISTEMA ZEHATZIK ESKAINI GABE! HEZITZAILEOK LAN EGIN NAHI DUGU! BAINA "GURE" POLITIKARIEK EZ DUTE NEGOZIATU NAHI! Uste badute itxaroteak eta geurea dena aldarrikatzeak indarge utziko gaituela, jai daukate! SOILIK GEUREA DENA ALDARRIKATZEN DUGU, EZ BESTERIK, GEURE EREDUKO HEZKUNTZA SISTEMA MANTENTZEA! (hainbat komunikabide kontrakoa esan badute ere).

Gogora dezagun 32 pertsona, hots 32 familia, kale gorrian gelditu direla; inguruko egoera soziala gure kontra izanez ere: etxebizitzaren arazoa, amatasuna, seme-alaben ardura, petrolearen igoera, eta orain akaso merezi ez duten "kontuen" aipamen zerrenda luzean murgilduta gaudela ere. BESTERIK EZ, MUSU BANA ETA ELKAR IKUSTEA NAHI BADUZU, EGUNERO GAITUZU 11etatik AUERRERA PLAZA BERRIAN. EDO KASU HONETAN, ESPAINIA PLAZAN?

HAUR ESKOLEN AUZIA

Arabian bizi gara. Arabako herrietan, Gasteizen. Familia gehienek D ereduari matrikulatzen dituzte seme-alabak eskolatan. Legeak argi eta garbi azaltzen du zeintzuk diren euskararekiko Hezkuntzak eta Eskolak dituzten betebeharrak. Baina Alonso alkate-ari hau dena ahaztu egin zaio. Berak egindako Dekretua, asmatutako familien interes baten atzean babesten du (Haur Eskolen ordutegia zabaltzearena, hain zuzen ere), baina familien benetako interesak berdin zaizkio (guztientzako plazak izan, sehaska-gela eta jantokietarako plaza gehiago eskaini eta haurrak euskalduntzearena, noski).

Dekretuaren ondorioz lan poltsa berria antolatze-ko jarraitu den prozesua lotsagarria izan da. Prozesu honek erakusten du Alonsori bost axola zaiola Haur Eskoletako profesionalen euskara maila, nahiz eta puntu batzuetan amore eman, halabeharrez. Dena den, egun, HAEEn 3. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dezaketen 32 lagun gehi lehengo lan poltsan zeudenak kale gorrian daude, lan poltsa barruan euskara maila hori egiaztatu ezin duten pertsona batzuk dauden bitartean.

Eta garrantzitsuena: Alonsori ahaztu zaio eskolatan urte batzuek geroztik euskaraz bizi ginatea ere; euskara, behingoz eta kostata, gutako zati bihurtu dela, gurekin datorren zerbit. Inolaz ere memento-aren arabera bazter daitekeen adabakia edo lan poltsa baten aurrean berdinketa hausteko balio duen zerbit. Zorionez, dagoeneko fase hori gaindituta geneukan.

Egunen batean lanera bueltatzen bagara, lanpostu batzuk bete gabe daudela aurkituko dugu. Beste alde batetik, ordezkapenen beharra sortuko da. Badakigu gaur egun lan poltsan gelditzen diren pertsonak ez daukatela euskara maila aproposik. Zer egingo dute orduan gure Hezkuntza Sailatik? Lan behar horiek pertsona hauekin bete? Lasai! Ez gaitzen kezka! Badakigu gure Alonsok botere handia daukala; beharbada, bere magia beltza erabiliz, egun batetik bestera pertsona horiek lanerako apropos bihurtzeko gauza izango da-eta.

Uztailaren 27an Gasteizko alkateak haur eskolen eredua hankaz gora utzi zuen dekretua aurkeztu zuen. Ondorioz, gizarteko sektore ezberdinak kaltetuak; betiko irakasleak, haurrak, gurasoak eta aiton-amonon kolektiboa. Baina guztietan minduena haur eskolen hezkuntza kalitatea. Dagoeneko, eztabaida kalean da, haurtzaindegien eredu egokia hautatzea, alegia. Hona hemen afera honen inguruan jasotako iritziak:

Aldara Duran, langilea



1) Guraso eta gure seme-alaba guztiontzat 'txapuza' bat dela uste dut. Lan egiten dugun bitartean, izugarrizko ahaleginak egin behar ditugu egunero haurrak zaintzeko. Haur eskolan matrikulazioa egitean eskaini zizkiguten baldintzak ez dira orain beraiek proposatzen dituzten berberak.

2) Zuzen-zuzenean eragin digu, nire seme Oier iaz haur eskolan izan zelako eta aurtan ere matrikulatu genuelako. Iruzur egin digute, ez digute azalpenik eman eta abuztura arte ez ginen ezertaz enteratu. Aiton-

-amonen, osaba-izeben eta familia osoaren laguntza eskatu behar izan dugu.

Hezkuntzazkoak. Iaz gure semeak haurtzaindegian jasotako arreta eta hezkuntzarekin oso gustura gaude. Ikasturtean izan zuen garapena izugarrikoa izan zen eta niretzat funtsezkoa da nire semearen hezkuntza.

Patricia Gonzalez, komertziala



1) Jende ugari ikusi dut kalean aldarrikatzen eta egunero gai horretaz hitz egiten entzuten da, baina egia esan, ez dakit zeintzuk diren dekretuaren oinarriak.

2) Niri, berez, datorren urtean eragingo didan neurria da.

3) Eredutxo biak funtsezkoak eta bateragarriak dira haur eskoletan. Orain arte, eskola hauetan lan egin duen pertsonala mantendu beharko lukete, eta aldi berean tekniko berriak kontratatatu. Lehenik eta behin, gurasoek jende arduratsua eta maitagarria nahi dute beren seme-alabentzako.

1.- Zer iruditzen zaizu Haur Eskolen inguruko dekretua?

2.- Zuzenean eragin al dizu afera honek?

3.- Haur eskolen eredu egokia hautatzea da dekretuak sortu duen eztabaidaren sorburu. Hezkuntzazkoak ala asistentziazkoak, zein ereduren alde egiten duzue?

Xabier Jimenez, aeronautikoa

1) Egia esan, ez dut gehiegi ezagutzen, izan ere, dakidana txarto iruditzen zait; alkatea nondik datorren ikusita, aurreikus zitekeen horrelako erabakia.

2) Bai, bi urteko umea dugu, hala ere, zorionez gure artean moldatu gara haurra zaintzeko. Aitzitik, aita-ama ugari arazoak izaten ari dira eta gure kasua ezohizkoa da.

3) Hezkuntzazkoak izan behar dute. Gure haurrentzako heziketa aproposa da gurasoek nahi duguna.



Maribel Alonso, erretiratua



1) Ez dut dekretuaren izaera oso ondo ezagutzen.

2) Ez. Mementoz, nire biloba ez doa haurtzaindegira, beraz, gure familia ez dago kaltetuta.

3) Asistentziazkoa ikusten dut haur eskolaren eredu egokia. Hurrengo urtean haurra pare bat orduz eramatea pentsatu dugu, batez ere, gurasoak liberatzeko.

Gasteizko haur eskolak

saioa fdz de arangiz
argazki press

kalitatezko hezkuntza, kolokan



GASTEIZKO HAUR ESKOLEK BETIDANIK ESKAINI DUTEN HEZKUNTZA KALITATEA ARRISKUAN DAGO. ALFONSO ALONSO ALKATEAK UZTAILAREN 27AN PROPOSATU ZUEN DEKRETUAK HANKAZ GORA JARRI DU ORAIN ARTE EMAITZA ONAK EMAN DITUEN ESKOLA EREDUA. HONEN BIDEZ, HIRIKO HAUR ESKOLEN ZERBITZUA BERRANTOLATU NAHI DU, KUTSU HEZIGARRIAREN GAINETIK, IZAERA ASISTENTZIALA INDARTU NAHIAN. HONEK GUZTIAK, 0 ETA 3 URTE BITARTEKO HAURREK HEZIKETA JASOTZEKO ESKUBIDEA URRATZEAZ GAIN, AURREKARIRIK GABEKO ONDORIOA DAKAR, HASIERA BATEAN, ESKARMENTU HANDIKO 127 HEZITZAILE KALE GORRIAN UZTEA, ALEGIA. ALDE BIEN ARTEKO AKORDIORIK EZEAN, HEZITZAILEAK GREBARI EGIN ZIOTEN IRAILAREN 1EAN ETA ALEA ITXI ORDUKO EGOERA NOLA ZEGOEN IKUSIRIK EZ DIRUDI AUZIAK BEREHALAKO KONPONBIDEA IZANGO DUENIK. HAUXE DA HAUR ESKOLEN GATAZKAREN KRONIKA.

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER

AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74

erreportajea

Uztailaren 27an Gasteizko alkate Alfonso Alonsok eta bere gobernu taldeak Haur Eskolen erreformarako agindua aurkeztu zuten. Ordenantza honek eskola hauetako hezitzaileen lan-baldintzak aldatzen ditu; langile hauen kategoria profesionala jaisten da, haur eskoletan lan egiteko behar den titulazioa aldatuz. Honela, hemendik aurrera Haurtzaindegiko teknikari espezialista titulua izatea aski izango da haur eskolen lan poltsan sartu ahal izateko. Aldaketa honek hezkuntzaren kalitatean izango duen ondorio zuzena da egunotan hiritarren artean sortu den kezka sorburu.

Orain arte Gasteizko 17 haur eskoletan 198 langile aritu dira lanean, hauen artean diplomatuak zein Haurtzaindegiko teknikari espezialistak. 71 funtzionarioak dira; gainontzeko 127ak berriz, behin-behineko langileak. Azken hauek dira, dekretuaren ondorioz, euren lanpostua kolokan ikusi dutenak.

Gatazkararen aurrekariak

Egiazki, dekretu hau bideratu duten arrazoiak ez dira oraingo kontua. 2000. urtean Udalak Haurtzaindegiko Enplegu-Plana garatu zuen, haur eskoletan lan egiten zuten hezitzaileen Lanpostuen Balorazioa eginez. Hauen artean Magisteritzako Diplomatuak zein Haurtzaindegiko teknikari espezialistak zeuden. Gehienak diplomatuak izaki, eta kontuan hartuz guztiak Administrazio C kategorian (administrariak) sartuta zeudela, C eta B (diplomatuak) taldeen arteko kategoria hibrido batean sartu zituzten hezitzaileak. Berez diplomatuak B kategorian sartuta egon beharko lukete, hala ere, kategoria aldaketa horrek Udalarentzat dirutza bat zekarrenez, ordu gutxiago lan egitea eta diru gutxiago kobratzea eskaini zieten. Hezitzaileek proposamena onartu zuten: "Guretzat gure lanaren aintzatespena izan zen, ez bakarrik soziala, 0 eta 3 urte bitarteko haurrek hezkuntzarako duten eskubidea ere onartu zelako ekintza honekin", dio dekretuak zuzen-zuzenean eragin dion Miren Cruz hezitzaileak.

Geroztik ez da arazorik egon, alabaina, lanpostu finkoa zuten 3 hezitzailek dagozkien B kategoria eta dirua erreklamatu zuten eta epaitegi batek arrazoiak eman zien. Honen aurrean, eta gainontzeko hezitzaileek epaiaren zabalpena eskatzeko aukeraren beldur (kasu honetan Udalak 6 milioi euro ordaindu beharko lituzke agintaldi honetan), Gasteizko Udalak sententzia horrekin ezartzen den eredu "eutsiezina" zela esan zuen. Hala, Udalak Eusko Jaurlaritzak argitaratutako dekretu bat aitzakiatzat hartuz, haur eskolen erreformarako dekretua plazaratu zuen Uztailan. Jaurlaritzako dekretu honek bi motatako langileak onartzen ditu 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntzan; lizentziatuak zein teknikariak, eta biek lan berdina egiteko gaitasuna dutela dio.



Izan ere, alkateak dekretu hau muturreraino eraman duela adierazi du Mirenek: "Bi titulazioak oso baliogarriak dira baina hori egiteko prozesu bat garatu behar da eta kasu honetan ez da bete. Ustekabean, 30 urtez ondo funtzionatu duen eredu bertan behera uzten du dekretu honek eta 127 pertsona kaleratzen ditu egun batetik bestera", azaltzen du Mirenek.

Dekretuaren ondorioak

Dekretua abian jarri zenetik gero eta latzagoak dira ondorioak. Batetik, aipatutako langileen kategoria profesionala murriztuko da eta aurrerantzean aski izango da haurtzaindegiko teknikaria izatea. Bestetik, langile hauen soldatak ere behera egingo du; lan egin beharreko orduak aldiz, gora egingo dute. Aldaketa honekin gizarteari zerbitzu hobea emango zaiola dio alkateak, haur eskolak soilik abutzuan itxiko direlako eta lan egiten duten gurasoentzat laguntza izugarria ekarriko duelako.

Haatik, ondorio kezkarriena haur hezkuntzaren kalitateak jasango duen kaltea izango da. Orain arte, haur eskolen eredu hezigarria izan da, dekretuarekin ostera, batez ere asistentziatzakoa bilakatu da. "Gasteiz erreferente bat izan da beti hezkuntza arloan eta ordenantza honekin kalitatea galduko da. Haur Hezkuntzako gelan egiten den guztia hezigarria da. Esaterako, pardelak aldatzean mugikortasuna suspertzeko masajeak egiten dizkiegu umeei. Orain, ordea, kutsu hezigarri hori galdu egingo da, zerbitzu asistentzialari paso emanaz", azaldu du Mirenek.

Ildo beretik, ELA sindikatuak erreforma hezkuntza kalitatean

Argazki - Estudioa

Erramun

Hecadio Fourrier, 23
Inoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Inoa: 78 19 91
01004

Dalvez
argitarazleak

Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz



"atzerapausoa" dela dio, adin tarte horretan hezkuntzaren helburuak ondo barneratzea funtsezkoa baita.

Bestalde, hasiera batean euskararen kalitate maila murrizteko asmoa ere adierazi zuen alkateak, lan poltsan sartzeko soilik euskarazko II. Hizkuntza-eskakizuna eskatzen baitzuten.

Neurri honen aurkako protestak berehala entzun ziren eta hezkuntzaren politika aldatu zuten, baina ez guztiz; teknikariek zerrendetan sartzeko aski baitute euskararen ezagutza apala izatea.

Hezitzaileen erantzuna

Egoera honen aurrean, izugarizko zalaparta sortu zen Gasteizen eta hezitzaileak ez ezik, gizartearen sektore ezberdinak ahoa altxatu zuten. Udaletxearen aurreko kontzentrazioak eta protestak nagusitu ziren, baita Alonsoren gobernuaren eta hezitzaileen arteko tirabirak eta desadostasuna ere. Negoziaketa askoren ostean, kaleratuak izan ziren diplomatuak haur eskoletako lan poltsan sartzeko onartu zuen Udalak, betiere, hauek Haur Hezkuntzan 3 urteko esperientzia izaki. "Guri 3 urteko esperientzia eskatzen digute, teknikariek, ordea, ez dute esperientziarik behar. Horregatik, gaitasun handiko 32 langile zerrendetatik at geratu dira eta hori ez da bidezkoa", dio Mirenek.

"Egutegiaren aldaketa eta kategoriari so egitea onartu dugu, betiere, kaleratu guztiak euren lanpostua berreskuratzen

badute, alabaina, ez dute gure proposamena onetsi", gaineratu du.

Hortaz, akordiorik ezean, irailaren 1ean hezitzaileek greba mugagabeari hasiera eman zioten, 1.500 haur gasteiztar eskolarik gabe geratuz. Egun batzuk geroago, alkateak dekretua irailaren 30era arte etetea adostatu zuen oposizio talde politiko guztiekin. "Ez da benetako gabetzea, soilik atzeratu dute, dekretuaren ondorioek aurrera jarraitzen dutelako", diosku Mirenek. Bien bitartean, lan talde bat afera berriro bideratu nahiz ereduaren oinarri nagusiak adosten saiatuko da. "Gauzak egiteko modua penagarria izan da, hots, lehenengo, haur eskolen eredu erro-errotik apurtu dute, ondoren ezarri nahi duten modelo berria eztabaidatzeko", dio langileak. Honen harian, oposizio talde guztiek, Ezker Batua izan ezik, udal-gobernuan jarrera aldaketa egon dela diote eta hasiera batean dekretuaren aurka egon arren, orain grebaren amaiera eskatzen dute. Aipatzeko eta esanguratsua da irailaren 7an egin zen manifestazioan hezitzaileek jasotako babes sendoa. 5.000 lagun inguruk haur eskoletako langileen eskaeren alde egin zuten, besteak beste, familiak, Denon Eskola elkarteak, Aralarreko eta Ezker Batuko ordezkariak edo Magisteritza Eskolako zuzendaria Xabier Etxaniz. ELA, LAB eta EILAS sindikatuek ere mobilizazioaren alde egin zuten.

Egun, bilera eta elkarriketa askoren ostean ez da mementoz negoziaketarik izan hezitzaileen eta Udalaren artean. Tamalez, etorkizuna latza sumatzen da eta dirudienez konponbidea ez da berehalakoa izango. Bitartean, 1.500 ikaske haur eskolarik gabe daude Gasteizen.

DENON ESKOLA, GURASOEN AHOTSA

Haur Eskolen auzian gurasoen iritzia funtsezkoa da. Juan Karlos Alonso Quilchano, Denon Eskolako presidentea, 0 eta 3 urte bitarteko haurren gurasoen bozgorailutzat har daiteke: "Egoera oso larria da, batez ere, eskolak itxita daudelako eta gurasoek ez dakitelako umeak non utzi. Bestetik, irtenbide zaileko egoera da eta gure ustez, akatsik handiena dekretua egiteko modua izan da, den-dena eztabaidagarria zelako, bai eskolen prezioa zein eredu. Honekin guztiarekin alkateak argi asko utzi du indarrez gauza asko lor daitezkeela".

Denon Eskola-ren ustetan, Gasteiz hezkuntza-eredu aitzindaria galtzeko zorian dago. Ildo horretan, gurasoek jasango duten lehenengo iruzurra hezkuntzarena izango dela gaineratzen du Juan Karlosek. "Udalak liburuxka batean eskaintzen zuen hezkuntza eredu aukeratu zuten gurasoek, haatik, egun ez dakite zein izango den topatuko duten eredu. Bestetik, iruzur ekonomikoa ere izango da".

Azkenik, euskararen garrantzia azpimarratu du Juan Karlosek. "Denon Eskolan euskararen kontuak kezkatzen gaitu eta haur eskoletan ere euskararen normalizazioa eta kalitatea bermatu behar dela uste dugu", adierazi du elkarteko presidentek.

IRVSTA
poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

ITYRRIETA



Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

**OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK**

EA
eusko
alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI

www.euskoalkartasuna.org



www.gasteizabertzaleak.com

MIKO
Izozkiak

GASTEIZKO HAUR ESKOLEN

Haur Hezkuntzaren ibilbidea inoiz eroso izan ez bada ere, sekula ez du hartu gaur egun Administrazio ezberdinek zuzentzen dioten horren eraso handirik.

Hamarkada asko dira jadanik haur txikiekin lan egiten dugunok haurren heziketa defendatzen hasi ginela, haur hezkuntza kontzeptua ezartzea lortu arte. Eta zenbaitetan lortu genuen.

Kontzeptu aldaketa honekin batera udal batzuek lehengo patronatuak eta giza zerbitzuen fundazioak egokitzeari ekin zioten, eskola berriak sortu eta gizarte zein haurtzaroarekin konpromisoa hartu zutelarik.

Honekin guztiarekin bat etorritz, Gasteizko Udal Haur Eskolen sarea eratzen hasi zen, gaur egun 17 eskolaz osatua eta ia 30 urteko hezkuntza esperientzia duena.

Egia esan, Haur Hezkuntzaren historia milaka lagunen historia da, beraien borondate eta sinesmenari esker iritsi baikara errealtate honetara.

Baina uda honetan, bat-batean, Gasteizko alkatearen dekretuz, hirian erabat finkatuta genuen hezkuntza eredua bertan behera gelditu egin da. Ezarri digun berrantolaketak ziurtasun gutxi eta kezka asko sortzen dizkigu. PPK, lanaren eta familiaren arteko bizitza adostu

nahian, Eusko Jurlaritzak 0-3 zikloa arautzen duen Kalitate Legearen filosofiarekin bat etorritz, dekretua egin zuen.

Bi dekretu hauek, erabat baztertuta geneukan bidea hartzen dute; hots, 0-3 zikloan haur-zaintzeari garrantzia ematen diona. Gogora ditzagun Malaguzziren hitzak: "Zaintza hutsa gizakiaren minbizia da". Medikuntza arloan osasun asistentziako zentroak osasun zentru bilakatu dira, garai bateko gizarte-laguntzaileak gizarte langileak dira egun. Asistentziak beharra, gaitasun falta, karitatea, gogorarazten dizkigu, eta herriko sektore bat asistentziara baztertzea ez da gizarte aurrerakoi bati dagokiona. Encina Serrano, Hezkuntza Zinegotziak hau esan du: "Orain dauzkagunak hezkuntza teknikariak dira, baina zerbitzu honek prestakuntza asistentziala behar du, ez, ordea, hezkuntzan prestatuak" (Arabako Egunkaria, 04-06-15).

Ez dezagun haurtzaroa ahulda-dearekin eta ezintasunarekin lotu. Umeak hazitzen ari diren eta eskubideak dituzten pertsonak dira. Ez diezazkiegun haurtzaroak dituen aberastasun eta ahalmenak uka.

Inork ez du zalantzan jartzen umearen nortasun osaketan familia dela lehen erreferentea. Era berean,

esan ere esan dezakegu haur eskola haurra hazteko inguru aberatsa dela.

Haur Hezkuntzako zerbitzuen kalitate indizeen gaineko ikerketek honetan dihardute:

➔ Aniztasunezko eta zaindutako espazioak.

➔ Egokitutako hornikuntza.

➔ Heziketa proiektu on bat eta antolamendu egokia.

➔ Heziketa bidetik joanez, norbanako atentzioak bermatuko dituzten ratioak.

➔ Etengabeko formakuntzan ari den profesional bakarra.

➔ Hezkuntza bikotea: bi pertsona, bi hezitzaile, biak lan-mail berekoak, soldata berarekin, funtzio berarekin, haur talde baten tutoretza ardura dutenak, eta lan ordu gehienetan elkarrekin lan egiten daudenak.

➔ Familia-harremanen garrantzia: haur eskolek beste familiekin eta hezkuntza

Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA
OIA RTZUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behean - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobilo: 639 81 51 30

GEU
GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA
PUBLIZITATEA
945 22 21 53



Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073



XIXILU JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

GAINEKO HAUSNARKETAK

profesionalekin harremanak bideratzen dituzte.

➔ Haur eskolan egiten den guztia hezigarria da. Budapest-eko Lóczy Institutuak frogatu du profesionalen eguneroko bizitzan prestakuntza zein beharrezkoa den; jatea, lo egitea, pardelak aldatzea eta abar hezkuntza dela ahaztu gabe.

Aipatu ditugun indize hauek minimoak dira; ez dira bakarrak ezta itxiak ere. Hezkuntza lan honen beste kalitate indize bat gure eguneroko lana berraztertzea da.

Eta orain eskubideaz mintzatuko gara. Umeen eskubideak, heziketa leku egokiak edukitzeko eskubidea. Familien eskubideak, batez ere amena, lan egiteko eskubidea. Beraz, bai esaten diogu egutegi malguari, baina umeek oporrak izateko eta beren familiekin egoteko eskubidea dutela kontuan hartuz.

Eta jakin ere jakin behar dugu, eskubide hauek guztiak haur-eskoletako langileen eskubideekin bateratzen. Haurrak, jaiotzen denetik, kalitatezko eta publikoa izango den heziketarako eskubidea du. Horregatik, gizartearen eskaerak

ezin dira inoiz eskubide honen aurka joan.

Haur Eskolako Hezitzaileak garenez, Administrazioari, eta bereziki Udalari, hezitzailetzat hartzea eskatzen diogu. Beraz, hitzarmenak eta egutegiak negoziatzerakoan, batez ere gure eskolen kalitatearengatik, errespetuz trata gaitzatela eta guztioi baldintza berak eman diezazkigutela eskatzen diegu. Ez daitezela merkatuko legez balia, aintzakotzat har gaitzatela, ez dezatela umeen kostuekin, ordukin, egunekin, oporraldiarekin eta abarrekin litxarreriarik egin, gure lana oso garrantzitsua baita.

Gasteizko Udalak Hiri Hezitzaileen Gutuna sinatu zuen. Gutun horrek hauxe dio: "Hiria hezitzailea izango da, betiko funtzioez gain (ekonomikoa, gizartekoa, politikoa, eta zerbitzu prestakuntza), hezitzaile funtzioa ere baduela bereganatu, landu eta garatzen duenean, bere helburua formakuntza, promozioa eta biztanle guztien garapena (haur eta gazteengandik hasita) lortzeko asmoa eta erresponsabilitatea bereganatzen dituenean".

0-3 arteko heziketa garrantzitsuegia da politikarien esku uzteko. Heziketa bera giza helburua da, haur eskola etorkizunaren oinarria baita.

Dena agerian jar dezagun. Hiri

honetako Udalak eskolak egunean 11 ordu eta 11 hilabetez irekita egotea eskaintzen die familiei, nahiz eta horiek plaza gehiago eskatzen duten. Ikasturte honetarako 350 ume haur-eskoletara joateko aukerarik gabe geratu dira, baita hainbat ere jantokirik gabe (eta hobe, Udalarentzat jakina, menu bereziez hitz egiten ez badugu).

Heziketa ezin da bideratu elkarriketarik gabe. Era berean, eskola batek elkarriketarik gabe ezin du aurrera jo; hezitzaileen arteko elkarriketa, gurasoekin, umeekin, ... Hezitzaile guztion eta Administra-zioaren arteko elkarriketa.

Hausnarketa, pentsamendu, erabaki eta ideia hauek guztiak 0-3 urte artekoekin ari diren profesionalengandik (Malaguzzi, Pikler, Viçens Arnaiz, Hoyuelos, 1996ko Delors-txostena...) jaso ditugu eta gu bat gatoz beraiekin. Gure lana eta beraiena bide beretik doaz. Beti bide beretik.

Galdetzen denean erantzun egin behar da. Norbaitek erantzuten duenean entzun egin behar dugu.

Vitoria-Gasteizko Udal

Haur Eskoletako Hezitzaileok

Bacalao Giraldo



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Iratiren
BONARDI "AIRE"
armazoiak

orain

60 € -tan
bakarrik

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Eskaintza horiek 04/09/01etik 04/11/30era arte izango dira indarrean

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
ertzean) Tfnoa: 945 25 03 52

> GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA
PUBLIZITATEA
945 22 21 53

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



KID

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ


XIBA EGITASMOA

Ongi etorri jolas eta kirolen dantzara!

edurne begiristain

argazkiak: ikastolen elkarteak

EUSKAL JOKO
TRADIZIONALAK
BERRESKURATU,
ZAHARBERRITU ETA
INDARTZEKO XEDEZ,
XIBA-EUSKAL HERRIKO
JOLAS, JOKO ETA
KIROL EN LEHEN
TOPAGUNEA EGIN DA
AURTEN, IKASTOLEN
ELKARTEAK ANTOLATUTA.
XIBA EGITASMOAREN
LEHEN EDIZIOA
(AURTENGO MAIATZA ETA
EKAINA BITARTEAN
BURUTUTAKOA)
ARRAKASTATSUA IZAN DA
OSO ETA EUSKAL HERRI
OSOKO MILAKA LAGUNEK
PARTE HARTU DUTE.
ARABARI DAGOKIONEZ,
JENDEAREN HARRERA
EZIN HOBEA IZAN DENEZ
(200 LAGUN INGURUK
ESKU HARTU ZUEN)
DATORREN URTEAN
ESPERIENTZIA
ERREPIKATZEKO ASMOA
DUTE ANTOLATZAILEEK.





Baina zer da Xiba egitasmoa? Nola sortu da? Zein helburu ditu? Ikastolen Elkarteko kide eta egitasmoaren sustatzaile diren Edu Balsategik eta Roberto Acebesek proiektuaren nondik norakoak azaldu dizkigute. Xiba egitasmoaren sustraia duela hamabi bat urte Gipuzkoan sortutako Ikaspilota ekimenean topa ditzazkegu. Ekimen horren helburua eskola adinean euskal pilota sustatzea zen, bai klase orduetan zein klasetik kanpokoetan. Ikaspilota abian jarri zenean, hamaika lan egin behar izan zituen Ikastolen Elkartek, Balsategik azaldu digunez: hala, ikasmateriala lortu, jolas materiala egokitu, irakasleak formatu... "Prozesu luze honetan zeregin horretan egon gara, baina heldu da une bat dagoeneko pilotari zegokion dena prest geneukala, eta orduan galdera bat sortu zitzaigun: euskal kulturaren barruan badira beste kirol batzuk, zergatik ez zabaldu gure egitasmoa beste euskal joko batzuetara?"

Horixe izan da, hain justu ere, Ikastolen Elkarteko kideek azken urteotan izan duten erronka nagusia. Eta Xiba egitasmoaren bitartez erronka hori betetzea erdietsi dute. Hasiera batean 1. Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean abiatu zuten egitasmoa, joko tradizionalak suspertzeko asmoz. Baina segituan oharitu ziren gizarteari oro har euskal joko eta kirolaz gozatzeko parada ere eman behar zitzaioela. "Gizarteak ez du normalean aukerarik ematen euskal kulturari txertatuta dagoen jolas berezi batean aritzeko. Hori dela eta, aisialdiaz gozatzeko parada eman nahi genion jende orori eta halaxe sortu ziren Xiba topaketak", diosku Balsategik. Uda aurretik egindako topaketak, hain zuzen, 16 urtetik aurrerako jende orori eskaini zitzaizkion.

Arabian erantzuna, primerakoa

Euskal Herri mailako topaketak izan

zirenez, herrialde bakoitzean zenbait talde sortu ziren. Arabari dagokionez, partehartzea izugarri handia izan zen. Orora hamabi lagunez eraturako 13 talde sortu ziren, Arabako eskualde desberdinetako jendeaz osatuta, gainera. Araban legez, Euskal Herriko gainontzeko herrialdeetan irabazi zuten taldeekin azken jaia egin zen Tolosan ekainaren 19an.

Gure herrialdeari dagokionez, guztira, antolatzaile eta partehartzaileen artean, 200 pertsona inguruk esku hartu zuten maiatzaren 22an Landatxo polikiroldegian egin zen Euskal Jaian. Xiba egitasmoaren helburu nagusienetakoa gure joku tradizionalak berreskuratzea bada ere, zeharka beste helburu garrantzitsu bat ere erdietsi egin dela irizten dio Acebesek: "Giza harremanetarako tresna bat izan da. Landatxon egindako topaketetan jende guztiak hartu zuen parte, dantza, euskal musikaz eta abarrez lagunduta... oso giro ona sortu zen. Jendeak elkar ezagutzeko aukera izan zuen..."

Balsategik, berriz, joko eta froga desberdinetako partehartzea nabarmendu digu: "Xibaren bitartez, jendeak herri kirolen inguruan duen ikuspegi indibidual hori alde batera uztea lortu da. Jaia antolatuta dago jende guztiak ia froga guztiak egin ditzan". Dena dela, biek ala biek nabarmendu digutenez, Xiba egitasmoaren xedea ez da lehiatzea: "Euskal kulturaren inguruko jendearen arteko jaia da, tresnak euskal joko eta kirolak direla, baina, ez da nork irabazten duen ikustea", dio Balsategik.

Gasteizko Landatxoko jaian parte hartu zutenen "aberastasuna" ere azpimarratu digute Ikastolen Elkarteko kideek. Eskola munduan ez dagoen jendeari partehartzea zabaltzeak aberastasun hori lortzen lagundu duela uste du Balsategik, adibide bat jarritz: "Ikusi da tokan aritzeko, adibidez, berdin duela adinak, azkenean abilitate kontua delako".

Eta datorren urtean berriro!

Argi dute Ikastolen Elkartekoei datorren urtean aurtengo esperientzia errepikatzeak asmoa dutela. Helburu handinahitsurik ez dute, ordea. "Aurtengo mailari eutsi nahi diogu, besterik gabe", dio Acebesek. Izan ere, aurtengo topaketan bitartez agerian geratu egin da halako ekimen



bat abian jartzeko beharra zegoela gizartean, eta are eta gehiago Araba bezalako herrialde batean, non askotan euskal kulturari lotutako ekintzak alboratuta uzten dituzten agintariek.

Dagoeneko hasi dira datorren urteko topaketak prestatzen, baina oraindik

goiz da data zehatzaz hitz egiteko. Hala ere, aurtun bezala, maiatza- ekainaren bueltan egitea espero da. Bigarren topaketa horiei begira joko berriak antolatzeak asmoa dute Ikastolen Elkartekoei, baina betiere edozeinek parte hartzeko modukoak izanik.

EUSKAL JOLASAK ETA PILOTAREN ALDEKO KANPAINAK

➡ Arabako Ikastolen Elkartek Arabako Foru Aldundiaren laguntzaz bi kanpaina abiatuko ditu aurtengo ikasturterako. Batetik, Euskal Jolasak Plazara eta bestea Pilotaz Gozatu.

➡ Euskal Jolasak Plazara kanpaina Ikaspilota egitasmoaren bultzadaz antolatu da, eta euskal jolasak DBHn sustatzeko asmoa du. Bere helburu nagusiak honakoak dira: euskal jolasak lantzen duen unitate didaktikoa aurrera eramatea, ikastetxeetan eduki horiek lantzeko baliabideak ezagutzera ematea eta eskola orduetan eta eskolaz kanpo egiten diren euskal jolas jardueren artean, zubi eta elkarlana bultzatzea.

➡ Bestetik, Pilotaz Gozatu kanpaina Ikaspilota eta Arabako Euskal Pilota Elkarteen babesarekin batera antolatu da. Ikastetxeetan Ikaspilotak dituen kurrikular mailako baliabideak ezagutzera ematea eta eskola orduetan zein kanpo egiten diren pilota jardueren artean, elkarlana bultzatzea du xede ekimen honek. Lehen Hezkuntzako 3. zikloko 5. mailakoei zuzenduta dago.

IÑIGO VELEZ DE MENDIZABAL, Eibar taldeko jokalaria

"Bereziki ilusio handia egiten Mendizorrotzako"


HEZIKETA FISIkoa IKASTEN
DIHARDU, AURTEN
AZKENENGO URTEA. UMANDI
ETA OLABIDE IKASTOLAN
IKASI DU. EGUN 22 URTE
DITU ETA AURRERAN ETA
ESPANYOLEN ARITUZ GERO,
EUSKAL HERRIRA BUELTATU
DA AURTENGO
DENBORALDIAN EIBARREN
JOKATZERA. ENTRENATZAILE
KARNETA ATERATZEA ERE
BURUAN DARABIL GAZTE
HONEK.

• AURRERA KIROL KLUBEAN HAMARKADA OSO
BAT EMAN ZENUEN, 10 URTE ZENITUENETIK
20 BITARTERA, ALEGIA. NOLA GOGORATZEN
DUZU GARAI HORI?

Oso lagun handiak egin nituen urte
horietan guztietan. Aurrera-k zituen
maila guztietatik pasa nintzen eta
zentzu horretan klubak oso aukera
polita eskaini zidan. Garai polita izan zen.
2-B mailan nengoela Mendilibarrekin
kointziditu nuen; oso denboraldi ona
egin nuen eta guztira 13 gol sartu
nituen.

• BIZITZA OSOA AURRERA-N EMAN ETA
GERO, KANPORA BESTE KLUB BATERA ETA
BESTE HIRI BATERA ATERA ZINEN, ZER EKARRI
ZION HONEK ZURE KARRERA FUTBOLISTIKOARI?

Gogorra izan zen hasieran hiri berri
batean hastea eta etxetik alde egitea, baina
egia esateko Bartzelonara ilusioz beterik



joan nintzen. Pozik nengoen, izan ere,
Aurrera oso talde umila izan da beti eta
Espanoyl-ek lehenengo mailan taldea
zeukanez, jokalaria guztiei bezala futbolak

eskaintzen dizun maila gorenean aritzea
gustatuko litzaidake inoiz.

Bestetik, gauzak oso ondo hasi ziren
Espanyol-en, ondo moldatu nintzen

ri gasteiztarra

dit hiriko taldearekin eta zelaian jokatzek

josune v. m.

argazkiak: ikastolen elkarte

taldean eta titular moduan hasi, baina hirugarren partidán ezkerreko belauna apurtu nuen eta ezin izan nuen denboraldi horretan jokatu. Kolpe gogorra izan zen hura, etxetik kanpo pasa beharrekoa eta gainera lesioa luzea izan zen, 7 hilabeterako. Azkenik, nahi nuke Gasteizen hain maitatua den Aurrera taldeak bere arazoak ahalik eta azkarren konpontzea.

• LESIOEK ILUSIOA KIKILDU AL ZIZUTEN?

Hurrengo denboraldian hasi nintzen jolasten, eta beste belaunean ere minak nabariak ziren neurrian gehiagora joan ziren eta azkenengo hilabetea, maiatzean, meniskoa apurtu eta ebakuntza egin zidaten. Noski lesioek nire egoera sikioan eragina izan dutela; izan ere, bi denboraldi eman nituen jarraikortasunik gabe jokatzeko. Baina beti izan behar duzu baikorra eta pentsatu hori igarokorra dela.

• MENDILIBARREKIN BUELATU ZARA JOKATZERA, ABANTAILA HORTAZ?

Berak ezagutzen nau eta badaki nola jokatzeko dudak. Tratu pertsonalean oso ondo moldatzen gara, baina azkenean partiduetan jokatzeko orduan norberak landu beharko du bere bidea, hor ez baitago fabore traturik eta.

• NOLA AURREIKUSTEN DUZU ZURE DENBORALDI BERRIA EIBARREN?

Lesioa guztiz sendatzea da nire lehentasuna, oraindik errehabilitazioan nago eta. Asmoei dagokienez, guztiz sendatzea eta ehuneko ehunean jokatzeko da, gol ugari sartzea, nola ez, berriro ere futbolaz gozatzeko. Hortaz, laburtuz, denboraldi ona egitea, ondo sentitzea nire belaunean eta minutu asko jokatzeko.

• EUSKAL HERRIRA ETA EUSKAL TALDE BATEAN ARITZEAK POZTASUNA EKARRIKO ZIZUN, EZTA?

Noski, hemen baitaukat familia, lagunak eta neska.

• NOLA IKUSTEN DUZU EIBAR TALDEAREN DENBORALDIA?

Memento oso ondo hasi gara, 50 puntu ahalik eta lehen edukitzen saiatu behar dugu 2A mailan jarraikotasuna mantentzeko. Nahiz eta talde gaztea izan, kalitate handiko jokalariek ditugu.

• AURTEN 2A MAILAN ZAUDENEZ ZURE HIRIKO TALDEAREKIN JOKATUKO DUZU, ALAVESAREKIN ALEGIA. ZER IRITZI DUZU?

Egia esateko, bereziki ilusio handia egiten dit hiriko taldearekin eta Mendizorroztako zelaian jokatzeko.



DI-DA

-Jokalaria gustuko bat?

Gero eta gustukoagoa dut Ibrahimovic.

-Liburu bat?

El ocho, Katherine Nevillerena.

-Zelai bat?

Olaranbe.

-Oroitzapen bat?

Sub 17, Euskal Selekzioa.

-Amets bat?

Euskal Selekzioarekin jokatzeko.

-Futbolean arituko ez bazina, non?

Beste kirol batean arituko nintzateke.

-Zenbaki bat?

9 izan naiz urte askotan, orain 11 naiz. Beraz, biak.

IBILBIDEA

GASTEIZKO AUERRERA:

Beheko kategoriak, 91/92-98/99 denboraldiak. AUERRERA B: 99/00-01/02 denboraldiak.

R.C.D. ESPANYOL "B":

02/03 eta 03/04 denboraldiak.

S.D. EIBAR:

04/05; aurtengo denboraldia.

IGOR CHILLON, ARKI egitasmoaren arduraduna:

"Kirol eta aisialdi munduan euskararen egoera ikusita sortu dugu Arki egitasmoa"

ARABAKO ETA ARABARAKO EGITASMO BERRIA DA ARKI. BAGAREK ABIATUTAKO PROIEKTUA HELBURU ARGI BATEKIN JAIO DA: AISIALDIAKO EKINTZETAN EUSKARARI SARBIDEA EMATEA. IGOR CHILLON ARDURADUNAK EKIMENAREN ZEHAZTASUN GEHIAGO EMAN DIZKIGU.

edurne begiristain

argazkiak: edorta sanz

- UDA HASTEAREN ZEGOELA ARKI EGITASMOA ABIATU ZUEN BAGARE EUSKAL TOKIAK. ZER DA ZEHAZKI ARKI PROIEKTUA?

Euskara aisialdi eta kirol munduan txertatu eta bultzatzeko tresna edo egitasmo bat da. Aisialdiko ekintzetan, eta bereziki kirol jardueretan euskarari sarbidea ematea da egitasmo honen helbururik garrantzitsuenak. Oro har esan daiteke haur eta gazteen hezkuntzan erabat lagungarriak diren aisialdiko kirol jarduerak kudeatzea dela xede nagusia. Guraso Elkarteek erabakitako eskolaz kanpoko kirol ekintzak antolatzea eta burutzea ikastetxe, ikastola edota eskoletan.

- ZER ERAGINDA JARRI DU MARTXAN BAGAREK EKIMEN HAU? ZER DELA ETA?

Euskalgintzako kide batzuok geneukan kezka batetik jaio da. Alegia, kirol eta aisialdi munduan euskararen egoera ikusita sortu zen. Zenbait arazo eta oztopo sumatu genituen euskarak arlo horietan aurrera

egiteko. Orduan, nolabaiteko azterketa bat burutu genuen, bi eremutan: batetik, erakundeetan (batik bat Gizarte Etxeetan) eta, bestetik, irakaskuntzan edo eskoletan. Eta azterketa horren ostean zenbait ondorioz heldu ginen: erakundeetan edo Gizarte Etxeetan helduentzako euskarazko ikastaro bakarra zegoela, eta batzuetan euskararen aurkako jarrera edo axolagabekeria zegoela. Eta horrekin batera, Udaletik esaten zen begirale euskaldunak ez zegoela, eta hori zela euskarazko ikastaro gutxi egotearen arrazoia. Bestetik, eskolaz kanpoko ekintzak aztertu genituen, eta ikusi genuen ikasle euskaldunak begirale erdaldunekin zeudela, eta beraz, ekintzak gazteleraz egiten zirela. Beste alde batetik, ikasleek euskara klaseekin edo disziplinekin lotzen dutela, eta klasetik at ez dagoela hitz egiteko ohiturarik. Eta horretaz gain, ikasle gehienek ez dutela hiztegi edo erregistro informalik.

Bestalde, agerian geratu zen begiraleek ez zutela behar besteko formaziorik, eta euskaldunak ziren arren, mugak zituztela. Era berean, ondorio komun bat zen begiraleen lan baldintzak kaskarrak zirela: soldata oso baxuak dituztela, gizarte asegurantzarik ez, formaziorik ere ez...

- ETA ONDORIO HORIEI ERREPARATU OSTEAN, ZER IZAN ZEN ZUEK PROPOSATUTAKOA?

Gure eremuan, hots, Araban eta Gasteizen zerbait egin behar genuela erabaki genuen eta beste herri batzuetan martxan dauden esperientzia edo ekimen batzuekin harremanetan jarri ginen: Sortzen, Aixè, Txatxilipurdi, Berbarorekin... Haien funtzionamendua, antolaketa, finantziarioa, begiraleak lortzeko modua eta abar aztertu genituen. Bildutako informazio guztiarekin Arki sortu genuen. Bagareren filosofiarekin bat egiten zuela ikusita, bertako proiektu bat izatea proposatu genuen euskararen aldeko

egitasmoa zelako.

- ZEINTZUK DIRA PROIEKTU HONEK DITUEN EZAUGARRI FUNTSEZKOENAK?

Alde batetik, euskarari garrantzi guztia ematea, horren barruan erregistro informalaren garrantzia azpimarratuz. Bestetik, begiraleen lan baldintza duinak bermatzea beharrezkoa ikusten genuen. Eta azkenik, kultur elkarte batean egonda, etekinak lortzekotan horiek euskararen alde inbertitzea.

- PRAKTIKAN, NOLA GAUZATUKO DA ARKI EGITASMOA ESKOLETAN?

Ekimena martxan jarri genuenean, lehenak eman genien eskolaz kanpoko ekintzei. Horretarako, azpi-programa bat abiatu dugu: Arki Ikastoki. Ekimen honen bitartez lehenik eta behin eskolaz kanpoko jardueren garrantzia azpimarratzen dugu, baina ikasleak hezitzeko modu gisa. Eta heziketa horri euskara lotzen baldin badiogu, primeran! Gure lana litzateke eskolaz kanpoko ekintzak kudeatzea. Horretarako Denon



ARKI egitasmoa

BAGARE Euskal Tokia

Aiztogile kalea 62-behea

01001 Gasteiz

Tel: 945 251 084

Igor Chillón (arduraduna): 639 882 875

e-posta: arki.aisialdia@euskalerrria.org

genuen ekainaren bukaeran. Gu gainera, prest gaude edozein proposamen aztertzeko. Horretaz gainera, begiraleentzako lan poltsa bat ireki genuen, eta hasi gara jada curriculumak jasotzen. Lehen esan bezala, lan baldintza duinak eskaintzen ditugu.

- ZEINTZUK DIRA, ZEHAZKI, ARKI EGITASMOAK ESKAINTZEN DITUEN ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK?

Lehenik eta behin esan behar da gure monitoreak ohikotzat jotzen diren kirolak programatzeko eta zuzentzeko gai direla: Futbola, futbol 7, areto-futbola, saski-baloia, eskubaloia, atletismoa eta antzeko kirolekin arituak dira. Horretaz gainera, nolabaiteko kirol espezializatuak ere landuko ditugu (xakea, yoga, tai-chi, judoa, tenisa...) ikastetxeek horrela eskatuta, eta aukeren arabera, noski. Betiko jokoak (soka saltoa, kurkuluxak, zaku-lasterketa, ...)

eta herri kirolak (koskolak biltzea, sokatira, txingak...) ere landuko ditugu. Jarduera hauen bitartez, umeei eta gazteek jokoak eta kirola uztartuko dituzte. Beste eskaintzetan bezala, garrantzi berezia ematen diogu umeei eta gazteei euskarazko erregistroak transmititzeari, haiek modu natural batean komunika daitezen arlo ludikoan.

- IKASTURTE BERRIA HASI BERRI DA. ORAIN HASIKO ZARETE IKUSTEN ARKI EGITASMOAK DUEN HARRERA ZER-NOLAKOA DEN. ZER ESPERO DUZUE?

Baikorrak gara, eta harrera ona izango dugula ziur gara. Horrek emango digu aukera datorren urteetan eskola edo eremu handiagoetara zabaltzeko. Orain Gasteizen zabaltzen gara, baina aztertzen ari gara beste eskualde batzuetara nola hedatu.

Eskolarekin eta ikastolen Federazioarekin harremanetan jarri ginen, eta bietan oso harrera ona izan dugu eta

begi onez ikusi dute gure proiektua. Haiekin hitz egin ostean, Gasteizko eskola guztietara proiektua bidali



LUIS LOPEZ BOROBIA

"Borobia" sagardo ekologikoaren ekoizlea

...ETA EKOLOGIKOAK

"Gure helburua ez da Gipuzkoako sagardogileekin lehiatzea, Arabako zigilu ekologikoa lortzea baizik"

- ZER DELA ETA HASI ZINEN SAGARDO EKOLOGIKOA EKOIZTEN? ZERK BULTZATUTA?

Nik biologia ikasketak egin ditut, botanika adarra batez ere. Hartara, betidanik interes handia izan dut ingurumenarekin zerikusia duen guztiarekiko. Duela 8-9 urte nekazaritzaren munduan sartzeko parada izan nuen, anaia eta biok lursailak baikekituen Ozaetan. Bertan zer egin pentsatzen ari ginela, tankera horretako ekoizpena lantzea hoberena zela erabaki genuen. Horrela, sagardoaren munduan sartzea ebatzi eta sagarrondoak landatu genituen. Sagar ekoizpena oso exijentea da, oso tekniko, eta guk haiek zaintzeko denbora gehiegirik ez genuenez, soberan zeuden sagarrekin sagardoa egitea otu zitzaigun.

- BAINA ZERGATIK EKOLOGIKOAREN ALDEKO HAUTUA ETA EZ OHIKO SAGARDOA EKOIZTU?

Hasiera-hasieratik oso garbi geneukan ekologikoa izan behar zuela, ez genuen inolako zalantzarik horretan. Lehentasunak lurra zuela argi izan dugu beti, lursail garbia, zaindua, etikoki eta estetikoki ongi egotea nahi genuen. Egia esan gu pribilegiatuak gara, gure lanbidea, alegia, dirua ateratzeko modua, beste bat delako. Beraz, metodo ekologikoa erabiltzen hasi ginen, orain arte.

- ZER ALDE DAGO (ZAPOREAN, ITXURAN...) OHIKO SAGARDOAREN ETA EKOLOGIKOAREN ARTEAN?

Zaporean ez da zertan desberdintasunik nabaritu, aldea erabiltzen den sagar motan igartzen baita. Zaporea berezia

da tokiko sagarrak bereziak direlako. Guk Barrundiako sagarra erabiltzen dugu, eta horrek zapore berezia ematen du. Ekologikoa izaten denean, sagarrak beti dauka askoz zapore handiagoa eta sagardoa aberatsagoa da.

- EUSKAL HERRIAN NEKAZARITZA EKOLOGIKOA GORANTZ DOAN EKOIZPEN MOTA DA. HAATIK, ARGI DAGO ORAINDIK BIDE LUZEA EGITEKE DAGOELA OHIKO NEKAZARITZAK DUEN MERKATURA HELTZKO. SAGARDOAREN MUNDUAN ERE HALA AL DA?

Ez dabil jende asko sagardo ekologikoa ekoizten. Gu Eibarren bizi gara, eta Gipuzkoan oraindik ez dabil inor honetan. Dena dela, gure ekoizpena oso txikia da, negozio familiarra da eta. Gure helburua da urtean 10.000 botila egitea. Beraz, merkatuan sartzeko ez da zailtasun handirik aurreikusten, kopuru nahiko txikia delako. Gure helburua ez da Gipuzkoako sagardogileekin lehiatzea, Arabako zigilu ekologikoa lortzea baizik. Modu honetan berreskuratzen ari gara duela 200 urtetik hona Lautadan egon den ohituretako bat.

- ZEINTZUK IZAN DIRA EGINBIDE HONETAN AURKITU DITUZUEN TRABA NAGUSIAK?

Oro har esan daiteke European nekazaritza ekologikoa lantzen dutenek nahiko dirulaguntza txukunak jasotzen dituztela. Baina, gure kasuan, gu Gipuzkoan bizi garenez eta lursailak Araban ditugunez, Arabako Aldundiak ez diugu dirulaguntzarik ematen. Hartara, gure kabuz aritzen gara eta zailtasun ekonomikoak ez dira makalak.



EGITEN BADUGU?

GERO ETA EKOIZLE GEHIAGOK EGITEN DU EKOLOGIKOAREN ALDEKO HAUTUA. GEU HORIETAKO BIREKIN MINTZATU DA. BIEK ALA BIEK EUSKAL HERRIAN OHIKOAK DIREN EDARIAK EKOIZTEN DITUZTE: BATAK SAGARDOA, BESTEAK ARDOA. BATA ZEIN BESTEA EKOLOGIKOAK DIRA.



JOSE BASOKO

"Betikoa" ardo ekologikoaren ekoizlea

"Arabian gero eta gehiago dira ardogintza ekologikorako jauzia ematen ari direnak"



- URTEAK DARAMATZAZU ARABAKO ERRIOXAKO ARDOA EKOIZTEN. DUELA HIRU URTE EKOLOGIKOA EGITERA ERE ANIMATU ZINEN. ZERGATIK?

Batez ere osasun kontuengatik erabaki nuen. Ardoa are eta osasuntsuagoa izan, orduan eta hobe zentzu guztietan. Aurretik nuen ardo ekoizpen batekin hasi nintzen.

- ARABAKO ERRIOXA ARDO ONEN LURRALDEA DA, BAINA EKOLOGIKOA EZ DA OSO OHIKOA. BAKARRENETARIKOA IZANGO ZARA GISA HONETAKO ARDOA EGITEN, EZTA?

Bai, egia esan Arabako Errioxan ez dago jende asko ardo ekologikoa lantzen. Nafarroan, aldiz, aurreratuago daude. Hala ere, Arabian ere apurka-apurka gero eta gehiago dira ardogintza ekologikorako jauzia ematen ari direnak.

- ZER-NOLAKO HARRERA IZAN DU ARDO BERRI HONEK MERKATUAN?

Aurten guztia saltzea lortuko dut, eta ongi asko gainera. Bi mila botila inguru egin ditut, ardo beltzekoak, eta guztiak salduko ditut. Beraz, harrera nahiko ona izan dela esan dezaket.

- ZEINTZUK IZAN DIRA SUERTATU ZAIZKIZUN OZTOPO HANDIENAK?

Ez dut beste munduko trabarik aurkitu. Hasieran ardo teknikariek nahiko beldurra sartu zidaten, bestelako produktuak ekoiztea gomendatu zidaten...

Nik apenas nuen heziketarik honen inguruan, eta deus gutxi nekien ardogintza ekologikoaz. Hortaz, txakolin ekologikoa egiten duten ekoizle batzuekin elkartu, eta haiengandik ikasi nuen.

- OHIKO ARDOAREKIN ALDERATUTA, LANDAKETAN, ZAINZAN ETA EKOIZPENEAN ZEIN DESBERDINTASUN DITU ARDO EKOLOGIKOAK?

Ongarriak soilik organikoak dira, eta hori zail samarra izaten da, denbora dezente eskatzen duelako. Bestalde, belarra ohiko moduan moztzen da, izurriteen kontrako tratamendua bestelakoa da... Gauza asko dira.

- ETORKIZUNIK IKUSTEN AL DIOZU ARDO EKOLOGIKOARI GURE HERRIALDEAN?


Bai. Ohiko ardoaren tankerakoak edo hobeak egiten gauza izan behar dugu. Gainera, merkatua gisa honetako produktuen alde egiten ari da apurka, jendeak osasuntsu kontsumitu nahi duelako.



NEKAZARITZA EKOLOGIKOAZ HAUSNARTZEN

Nekazaritza ekologikoa azken urteetan izaten ari den goranzko joera ikusita, Bionekaraba, Arabako Nekazaritza Ekologikoaren aldeko elkarteak jardunaldi interesgarriak antolatu ditu hilaren 8an eta 9an Gasteizen. Nekazaritza Ekologikoari buruzko Jardunaldi Teknikoak izenburupean, Espainia eta Euskal Herriko zenbait adituk gaiaren inguruan hausnartu eta eztabaidatuko dute Armentiaiko Santuaren Jauregi Etxean. Ostiralean (hilak 8), aurkezpenaren ondotik, besteak beste, Laborantza estentsiboa nekazaritza ekologikoan, Agrokimikoak osasunean eta Mahastizaintza ekologikoaz arituko dira. Larunbatean (hilak 9), besteak beste, Baratzegaitza ekologikoa eta Ekoizpen ekologikoak nola merkaturatu izango dituzte hizpide.

Bestalde, urtero legeaz azoka ekologikoa egingo da hilaren 2an Gasteizko Aihotz plazan, BIONEKARABA alegia. Aurten zazpigarren edizioa du eta goizeko 9etatik 14etara zabalik izango da.



JORNADAS
TÉCNICAS
SOBRE
AGRICULTURA
ECOLÓGICA

NEKAZARITZA
EKOLOGIKOARI
BURUZKO
JARDUNALDI
TEKNIKOAK

VITORIA-GASTEIZ 8-9 OCTUBRE 2004
CASA DEL SANTO, ARMENTIA, VITORIA
VITORIA-GASTEIZ 2004ko URRIAK 8-9
SANTUAREN JAUREGI ETXEA, ARMENTIA



edurne begiristain // argazkiak: edorta sanz

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confeciones Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

Sartu

Zure arropa eta oinetak

www.sartuenda.com

Kubillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRA TABERNA

Equiditan, astelohenetik astelera

JANTOKI BEGETARIANO

SAN PRANZESKO XABIERKOAKEN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.: 945 27 68 33

TXUKUNA

EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...

Nafarroako errege-erreginen kalea, 11


HEGOALDE
Euskaltegia

Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ



AINARA ESCOBAR



AINARA

24 URTEKO IRAKASLE GASTEIZTARRA DUGU. BILBON ATZERRITAR HEZKUNTZAKO MAGISTERITZA IKASI OSTEAN, ATZERRIRA LAN EGITERA JOATEA BEHARREZKOTZAT JO ZUEN. HONELA, CHICAGON URTEBETE EMAN ZUEN BERTAKO IKASTETXE BATEAN KLASEAK EMATEN. BERE LEHEN LAN ESPERIENTZIA IZAN BAZEN ERE, "BIZIPEN PERTSONAL OSO POSITIBOA" ERE EKARRI ZION AINARARI, HERRIALDEA EZAGUTZEKO AUKERA EZIN HOBEA IZAKI, BERTAKO TXOKO ANITZ ETA JENDEA EZAGUTU ZITUELAKO. EGUN, GASTEIZKO IKASTETXE BATEAN HASI DA LANEAN AINARA, "BERRITSUA ETA SOZIALA" DELA AITORTZEN DUEN NESKA, HAIN ZUZEN. LAGUNEKIN EGOTEA GUSTUKO DUEN ARREN, BERE DENBORAZ BAKARRIK GOZATZEKO MEMENTOAK ERE BEHAR DITUELA DIO. IZAN ERE, LAGUNEKIN DENBORA LUZEZ GAI DESBERDINEZ EZTABAIDATZEA GUSTUKO DU OSO, "GAUZAK AZALTZERAKOAN ZEHAZTASUN EMALE ETA ESKALE" AMORRATUA BAITUGU.

• **DUZUN BIZIORIK HANDIENA?**

Lo egitea.

• **ETA BERTUTEA?**

Gauzak xehetasun handiz azaltzeko gaitasuna.

• **ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?**

Gaizki hartzen dut inork aurka egitea... jajajaja.

• **GEU ELKARTEA ETA ALDIZKARIAREN BERRIRIK BAI?**

Bai aspaldi, institutuko euskara irakasleak aldizkariaren berri eman zigunetik.

• **EGUNKARI BAT?**

Denak irakurtzea interesgarriena iruditzen zait.

• **TELEBISTA SAIO BAT?**

Egia esan, azken boladan ez dut telebista askorik ikusten.

• **FILMIK GUSTUKOENA?**
"Ciudad de Dios"

pelikula brasildarra eta "21 gramos" asko gustatu zitzaizkidan, azken honetan aktoreak direla eta.

• **JAKI GOZOREN BAT?**

Asko ditut gustuko, ezin dut bakar bat aukeratu...

• **FOBIARIK, BELDURRIK?**

Odola eta zainekin zerikusia duen gauza oro.

• **OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?**

Edonon, herrialdea eta bertako kultura ezagutu eta disfrutatzeko.

• **ETA NORA EZ ZINATEKE JOANGO?**

Ez daukat kontrako aurreiritzirik leku zehatz batekiko.

• **LIBURU BAT?**

Irakurri dudana azkena, Dan Brown-en "El Código Da Vinci". Aurretik ezezaguna zitzaidan

gaia (erlijioa) izan arren, erabat harrapatu ninduen.

• **KOLORE BAT?**

Berdea eta morea.

• **MUSIKA**

GUSTUKOENA?

Reagge-a asko gustatzen baina denetarik entzun ohi dut.

• **ZER DA GASTEIZEK DUEN ONENA?**

Lasaitasuna.

• **ETA TXARRENA?**

Alkatearen eta bere taldearen politika.

• **EUSKARAZ BIZI AL DAITEKE GASTEIZEN?**

Bizi daiteke, baina berez ez da egiten. Orain dela laupabost urte euskararen indarpena sumatu zen, baina nik uste egun atzera egin duela.

ZER ESKATZEN DU HERRIAK?

Bitzita duin bat.

URRIA. AGENDA

**erakusketak & lehiaketak & ikastaroak
& mintegiak & jardunaldiak****➔ AISIA, DENBORA LIBREA ETA GAZTERIARI buruzko
jardunaldiak**

Urriak 1 eta 2, 17.30etatik aurrera ALDABE gizarte etxean.
Doako sarrera.

Antolatzailea: Gauekoak. Informazioa: 945141060 /
www.gauekoak.org

Hiriko sektore guztiei irekitako proposamena da, gazteria, kultura,
aisia eta elkarten munduari buruzko partaidetza eta eztabaida
sustatzeko.

➔ ZUIAKO KUADRILLAKO II. ARGAZKI LEHIAKETA

Gaia: "Gure etnografiari begirada bat"

Epea: urriak 29

Informazioa: 945430167 / Zuiako Kuadrilla. Udaletxeko pz, 1-
2. ezk. 01130-Murgia. Araba

➔ INKA TXIKIA

SAURE argitaletxearen baloreari buruzko nazioarteko lehiaketa.
Atala: Gidoia.

Oinarriak: www.ed-saure.com

Epea: urriak 23

➔ INGURUMENARI BURUZKO ALEGIAK

SAURE argitaletxearen baloreari buruzko nazioarteko lehiaketa.
Umore grafiko eta tira komikoaren atala.

Oinarriak: www.ed-saure.com

Epea: urriak 30

**➔ MENDIZALETASUNEZKO IKUS-ENTZUNEZKO
JARDUNALDIK**

Urriak 13. Ion Goikoetxea eta Iosu Feijoo. "Everest, bi lagun eta
mendi bat"

Urriak 14. Juan Miranda. "A4 eta A5 arteko 8 bide Capitán-en
(Yosemite)"

Urriak 15. Elena Davila. Madagaskar eta Txileren arteko eskaladak.

GEU**➔ HITZALDI MULTIMEDIA**

GEU aldizkaria & GEU elkarte & Nabarralde
URRIAK 20, ASTEAZKENA
EUSKAL ESTATUAREN SORRERA,
ERLANTZ URTASUN historiagilearen eskutik
Montehermoso Kulturunean,
Betolatza aretoan, 20.00etan

➔ GEUREKIN MENDIRA

URRIAREN 24AN
GABOÑO ARTIA (1175m) (goizekoa)
Arduraduna: Maite 945282316
Irteera: goizeko 9.00etan Lovainan

➔ KULTUR ERROTA

URRIAK 26 (asteartea)
ANTTON IRUSTA ipuin kontalaria
Herri desberdinetako ipuin herrikoietatik zeharreko ibilbidea
20.30etan, PARRAL tabernan

➔ GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEAREN II. IRTEERA

URRIAREN 31n
BERIAIN (SAN DONATO) Autobusez
Informazioa: 635701536 (Gorka)

➔ GAUEKOAK EUSKARAZ

• **Urriak 2.** Iparralde G.Etxean.
23.30etan. Bertsoak eta Literatura, Arabieraz eta Euskaraz.
Koordinatzailea: Arabako Bertsozale Elkartea

• **Urriak 15.** Azkena Gasteiz Aretoan.
20etan. "Gor Jaia", LOR, LÁTEX eta STUPENDA JONES taldeekin.
Sarrera: 5 euro (30 urteetatik gorakoak: 10 euro).

• Gainera, honako ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago:
PERKUSIOA Azaroak 5, 12, 19 eta 26.
TXALAPARTA Azaroak 27, Abenduak 4, 11 eta 18.
EUSKAL DANTZAK Urriak 9, 16, 23 eta 30.
AEROBOXINGA Urriak 8, 15, 22 eta 29.

➔ XXIX VITORIA-GASTEIZKO NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIA (IRAILAK 25 - AZAROAK 11)

24 jardueratatik BAKARRA EUSKARAZ:
"Galtzerdia", Taun Taun, urriaren 2an (antzerki familiarra).

EGITARAUAREN %4,16 EUSKARAZ =
GASTEIZKO EUSKAL HIZTUNEN KOMUNITATEAREKIKO BAZTERTZEA



Gerardo Markuleta

—Rikardo, ni naiz —atzean entzun nuen ahots ezaguna. Aldi berean, hats kiratsu baten zirria iritsi zitzaidan garondotik.

“Maite zaitut maite maite...”

Josu bere kanturik ezagunenaren lehen lerroa belarrira xuxurlatzen ari zitzaidan, eta lepotik heltzen ninduen, indarrez, beso batekin. Bestearekin, mendiko labana alimaleko bat igurtzika zerabillkidan hankartean, bortitz eta geldiro, zakila balu bezala. Eta bat-batean bere txoro-hizketari ekin zion, hitzaurrerik gabe:

—Zure luma mengela nire jeinu-odoletan busti, eta txintxinetan aterako zinela uste al zenuen? Ni pertsonaia ero eta ankertzat erabili, eta isilik geratuko nintzelakoan? Baina zer esaten ari naiz! Nire emaztea ohe kide hartu, eta libre joango zinela zeunden sinetsita?

Josuren bakarrikzeta une horretara heldurik, jada erabat baztertu nuen arazo guztia ateraldi umoretsu batez konpontzeko ideia bestela ondo estimagarria.


Morroiairen lehen bi argudioak, begien bistakoa zenez, eztabaidagarriak ziren, iritzizkoak, “hitz egiteko modukoak”. Azken batean, eta muturrera eramanda, lanbidearen ajek.

Baina beste hirugarren argudio horrek, emaztearenak alegia, arazo pertsonalagoa bihurtzen zuen kontu guztia noski.

Une horretan, morroiak leundu egin zuen pittin bat besoaren presioa, eta eztarria garbitu ahal izan nuen, eztul txiki batzuk eginda. Musikari letra-zauritu

idazleen gorpila VII

DEPENDE VIII (AZKEN ATALA)



hark ez zeukan, itxuraz, berehala atertzeko asmorik.

“Ez al duzu entzuten ene aienerik...?”

—Bakarrik bizi izan naiz bizi guztian, eta bakarrik nago orain ere. Zure lana ondo egin baduzu, ikusiko zenuen zeinen gaizki erabili nauen iraganak.

Ez dut sekula izan lagun bat, esango zidana: “erlatibotasunaren kontu hori ere erlatibo samarra da”. Ez nuen inoiz izan lagunarte bat, entzun ahal izateko: “musikari ona ez da disko ugari saltzen duena, musikari ona da musika ona egiten duena”. Ikusten? Orain ere faltan daukat lagun bat, esango didana: “patetiko samar jartzen ari haiz oraintxe!”.

Bere berba-kakalarrian Josuk nahierara nahasten zituen eldarnioak, paranoiak, eskizofrenia eta jeinutasuna. Aldiro nire eztarria estutzen zuen, eta hitz egitean argi azaltzen zitzaion bizitza ulertzeko zeukan modu abestillero hori: lehenengo estrofa bat, gero estribilloa, gero beste estrofa bat eta berriz estribilloa, hurrengo estrofa...

—Inork ez dit garaiz esan, adibidez: “projektu bat ez da disko bat; disko bat disko bat da”. “Demagun” esan izan didate beti, behin edo behin bakarrik “Tori”.

Horregatik hartu dut Winchesterra, eta eskatu dut laranjazko Mirinda. Baina mundu honetan honezkero ez dago modurik ezta indiarrek eta poliziak bereizteko ere.

“Mendi garaienaren tontorretik...”

—Istorio txepela dauka “Tontorretik” izeneko kantu horrek. Goiko tabernako sarraskia gertatu zen zoritxarreko arratsalde hartan nik ez nuen beheko tabernara jo behar, koadrilakoekin, musika-taldekoekin biltzera. Taldeek galdu izan naute beti (edo nik hondatu ditut beti taldeak?). Horren orde, hobe nukeen Edurneren bila jo, neska ere nire atzetik zebilen eta

abesti baterako doinu batekin.

Ezkonduko ote ziren haren doinua eta nire hitzak? Ezkonduko al ginen Edurne eta biok? (Edurne ez al zegoen, ba, hilda?) Orduko hartan ez zegoen jakiterik, baina oxala Edurneren etxean biok biotara elkartu izan bagina! Hartara kantua berdin izango genuen, eta beharbada haurren bat bidean, baina sarraskirik batere ez (beno, hori ere ez dago seguru jakiterik...).

“Etsipenez gainezka amodio eske...”

—Baina orain (ai amigo, berriz erlatibitatea, beti erlatibitatea), orain galduak ditut koadrilako lagunak, galduak musika-taldeko kideak; galdu dut “Lagun” txakur fidela; galdu dut Edurne (edo ez hainbeste), eta Winchesterraren munizioa ere agortu zait. Ez dago horrenbesteko odolustea merezi duen abestirik —jarraitu zuen Josuk, bere ibilbide musikala esaldi bakar batean laburbildu behar balu bezala.

Ni beldurrez nengoen, ordea, musikariaren triskantzari ez ote zitzaion artean beste odolkiren bat falta. Beharbada kazetari-burmuinaren beldurrerako estrategia psikologiko hutsa izango zen, baina berehala gaztearen hil-oharra buruz idazteari ekin nion: “Josu Arrasti: musika, amodioa eta adiskidetasuna azken unera arte ezpainetan”. Azken uneak..., ez nuen batere garbi norenak izango ote ziren.

Kanta-egilea, aitortu beharra dago, oso ona zen berean, artista hutsa azken hatseraino. Eta ez zen erabat isildu, lehenago nire kronikarako izenburu hoberik eskaini gabe.

—Orain bai, orain pasa daiteke nire psikoaalista. Mila esker. Gonbidatuta zaudete guztiok nire autopsiara. Ondorio psikologikoak, badakizu —hitzez hitz hori esan eta, besoaren astindu batez askatzen ninduela, labana sartu zuen bere bihotzaren erditik.

© Gerardo Markuleta / Geu aldizkaria

GASTEIZ eta GA

Sta. Maria katedral zahararen inguruan egindako indusketei esker, antzinako Gasteizi buruz datu berri interesgarriak jakin ahal izan ditugu. Honekin batera, 1484ko agiri batean aurkitu berri da "la hermyta de Gasteays" terminoa. Hauek aitzakia hartuta Gasteizko sorrera eta izenaren inguruan dakiguna eguneratzen saiatuko naiz.

Has gaitezen Gasteizko sorreraren inguruan errepasoa egiten. Inguruko aztarnarik zaharrena orain dela 150.000 urte inguruko aizkora moduko bat da, Gasteizko hegoaldean dagoen **Aitzabal** barrutian aurkitua. Dakigunaren arabera Gasteiz inguruko aurreneko herrixkak edo kastroak II. Burni Arokoak dira (K.a. 500-0 urteetan). Garai hartan herrixkak muinoetan egin ohi ziren defentsa ziurtatzeko, eta zein leku hobe a Olarizu mendia edo **Kutzemendi** baino horietako bat jartzeko. Garai beretsuan, Lakuaren muturrean dagoen **Atxa** barrutian, Zadorra hiribidea eta Zadorra ibaiaren artean, eta beste muino batean kokatuta beste herrixka bat genuen. Bertan K.a. IV-III mendeko aztarnak daude eta erromatarren garaiko ejertzitoaren kanpaleku bat ere hantxe gen zen..

Astorgatik Bordelera zihoan erromatar galtzadan eta kristiaren lurraldean, Arkaian, **Suestassium** edo **Suessatio** hiria dugu. Haren jatorria K.a. III. mendean zegokeen eta K.o I. mendean bere gorenaldira iritsi omen zen. Azken indusketetan kale eta eraikuntza garrantzitsuak sumatu diren arren, aurkitutako erromatar termak dira ikusgarrienak.

Hemendik 4 kilometrorra, **Salbatierrabiden**, Mendizabala muinoaren ondoan, erromatarren garaiko beste aztarnategi garrantzitsu bat aurkitu zuten terma eta guzti, Brontze garaiko hainbat materialarekin batera.

Inguruan aztarna gehiago aurkitu diren

arren -Armentia, Mariturri, Batan...-, gehiegi luzatu gabe hel diezaiozun **Gasteizko muinoari**.

Azken urte hauetan Agustin Azkarate arkeologoaren gidaritzapean indusketak

antzerak. 1089 urtean Donemiliagako monastegiari emandako dohaintza batean **Alvaro Gonsalvez de Gasteiz** agertzen zaigu. Azkenik, Antso VI. errege nafarrak izena aldatu zion forua ematearekin batera,



egin dira Sta. Maria Katedralean eta inguruetan. Oraindik aurkikuntza berriak espero diren arren, dagoeneko zenbait datu interesgarri jakin ahal izan ditugu. Besteak beste, muinoan orain dela 2000 urte inguru nolabaiteko asentamendua egon zela, eta I-III mendeetako zeramikak aurkitu direla. Aurreko mendean aurkitutako arma batzuk Aldaietakoen antzekoak dira, beraz, VII. mendekoak izango liriteke. VIII. mendetik aurrera datu gehiago ditugu eta etxeen arkitekturan 3 fase daude: hasieran egurrezkoak dira; gero mistoak, egur eta harrizkoak; eta hirugarren fasean aldaketa handia sumatzen omen da harrizko harresia eta lehenengo eliza eraikiz. Harresi hau, orain arte 1181ekoa, hots, Nafarroako Antso VI.ak Victoria hiribildua sortu zueneko zela pentsatu arren, duela gutxi 100 urte zaharragoa dela jakin dugu.

Arkeologia alde batera utzita, gure hiria 1025 urtean Donemiliagako Erreja famatuan agertzen da **Gastehiz** izenarekin 3 erreja emanez, beraz, gutxienez 30 etxe izango zituen orduan -Armentia eta Lasarte herrien

"Victoria, que antea vocabatur Gasteiz".

Ordutik baina, beste agiriak edo Gasteiz izenaren aipamenik ez zegoenez, aldaketarekin batera izen zaharra orduan galduko zelako ustea zabaldua zegoen. Horregatik sorpresa izan da 1484ko agiri batean Gasteays topatzea. Izan ere, orain dela gutxi Ernesto Garcia Fernandez historiagile arabarrak "Gobernar la ciudad en la Edad Media: Oligarquías y élites urbanas en el Pais Vasco" liburuaren aurkezpenarekin batera datu interesgarri hau eman zigun. Antza, bere liburuaren prestaketan ari zela Gasteizko Udal Artxibategian 1484 urteko agiri batean honakoa aurkitu zuen: "A veynte e un dias del mes de disienbre en la hermyta de Gasteays desta dicha ciudad que es la Santcristania de Sant Biçente desta dicha ciudad estando ende juntos el alcalde y reguidores e procurador e deputados Juan Martines de Ulybarri e Pero Sanches de Maturana e Garçia Martines Destellla e Rodrigo de Betonnu e el merino e Lope Lopes e el liçenciado de Alaba...".

Testua sakonago aztertu beharko dela

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



GASTEIZKO BATZOKIAK

ABENDAÑO	ERDIALDEA	LAKUA	ZARAMAGA
Enrique Eguren, 5-7 Tfnoa. 945242852	Santa Barbara pza. z/g Tfnoa. 945203312	Biltzar Nagusien k, 54 Tfnoa. 945175651	Gasteiz kalea, 18 Tfnoa. 945288068
945220715 (jantokia)	945280997 (jantokia)	945176406 (jantokia)	

Taldeentzako bazkariak eta afariak prestatzen dira, aurretik erreserba eginez

STEAIZKO ermita

Kike Fdz. de Pinedo

jakinda, jarraian dakiguna eta izen berriak iradokitzen dituen hipotesi batzuk azter ditzagun:

➔ Testuak aditzera ematen digunez, Gasteays / Gasteaizko ermitaren gainean eraikiko zen

akatsa izatea; E. Garciak, ordea, ez du uste hala denik beste terminoak zuzenak direlako. Akatsa ez bada "Gasteiz" en aldaera bat dela ematen du; hau hala bada, **Gasteaiz** grafiak egokiagoa dirudi. Eskribauak y/i nahasten


"iz" atzizkia ditugu eta antzeko abizenetan bezala Gaste (gazte) izeneko aitaren seme-alabak direla adierazten du abizenak. Era berean, Bilbon 1464an, Maria Asteax, antza Gasteizen aldaera dena.

➔ Gasteiz edo Gasteaiz hiriaren esanahiari dagokionez, badira haren jatorri germanikoa defenditzen dutenak (Iglesias, Dauzat eta Rostaing). Baina hemengo zenbait adituk, batez ere A. Irigoienek, lan monografiko batean gaia sakon aztertu eta gero, azalpen koherente eta ondo argudiatua eman dute izenaren inguruan. Oinarrian, gazterekin lotura duen Gaste(a) pertsona izena ikusten dute, eta honi erantsita, jabegoa adierazten duen "iz" atzizkia. Hortaz, Gasteiz: Gaste izeneko hiri/herria izango litzateke.

Irigoienek hitzak laburbiltzen digu iritzia: "entrando de lleno en la cuestión de Gasteiz creo que se puede afirmar con una seguridad razonable que nos encontramos ante el patronímico correspondiente al nombre vasco de persona Gaste, documentado generalmente, aunque no exclusivamente, con el artículo -a en la forma de Gastea, que nos recuerda al latino Juvenis..." eta adibiden artean XV. mendeko hau ematen digu: don **Gastea d'Arburu de Alaba**.

Litekeena da, hortaz, Gasteaiz izenaren oinarrian Gastea, hau da Gaste izena artikularekin, izatea. Eta Gasteiz izenaren aldaera bat baino ez izatea. Antzeko adibideak -artikuludun eta artikulugabeko herri-izenak- Araban bertan aurki ditzakegu: Elhossu 1025ean, Elosua 1257, 1294an, eta gaur Elosu; edo Hilardui 1025ean, Larduya 1257an, gaur Ilarduia.

➔ Hasieran esan dudan bezala hipotesi eta galderak baino ez dira, datu eta argibide berriak etorriko dira. Badute non ikertu onomastikan adituak direnek eta arkeologok!



San Vicente eliza, ermita zaharrean sakristia jarri. Argigarria da Ernesto Garciak berak "Historia de Alava" liburuan dioskuna: "a modo de hipótesis se puede plantear que las iglesias de S. María y S. Miguel podrían actuar como iglesias parroquiales de la aldea de Gasteiz (...). Por el contrario parece probable que la iglesia de S. Vicente -tal vez la más antigua de Vitoria- fuera por esas fechas un centro de religiosidad de menor entidad, quizá una ermita junto a la que se levantó una fortaleza o castillo y posteriormente la iglesia del mismo nombre". Gure arkeologok badute beraz ikergune berria.

➔ Araban Erdi Aroan désagertutako hainbat herriren izenak gorde ziren bertako ermitari izena emanez (Ania, Sallurtegi, Berberana, Aiala)...; tartean badugu Gasteizko kasuaren antzeko adibidea: 1256 urtean Peñacerrada sortu zen Urizaharra ordezkatzuz, eta halaber, 1613ko testu batean "la hermyta de nuestra señora de Urizarra" agertzen da.

➔ "Gasteays" izenak interrogante bat baino gehiago dauka. Baliteke eskribauaren

ditu (veynte, hermyta, diciembre, dias), beraz grafia kontua dirudi. Bestalde, s/z letrak txandakatzea ez da batere arraroa garai hartan (1025ean Argumaniz, 1504an Argumanis, gaur Argomaniz; eta testuan bertan Sanches, Martines edo Lopes ditugu). Hortaz, grafia kontu hutsa izan daiteke. Baliteke bestalde, garai hartan s/z soinuak nahastea -Mitxelenaren arabera XVII menderako mendealeko euskaran erabat nahasten ziren bi fonema hauek-.

➔ 1179an Gaztela eta Nafarroako erregeen arteko hitzarmen ezagunean, Antso Jakitun errege nafarrak Arabako jauntxoei lurak ziurtatzen dizkie "excepto Castellaz et Trevinno". Honen harian, E. Knörrek edo E. Garciak Castellaz Gasteiz izan daitekeela uste dute. Orain Gasteaiz aldaerarekin antz handiagoa izango lukete bien artean.

➔ Gasteiz patronimiko edo abizen bezala aurkitzen dugu Erdi Aroan. Honela XV. mendean Ameskoan ditugu: Pero Gasteyz, Enequo Gasteyz, Lope Gasteyz eta Sancho Gasteyz; Donostian 1466an: Maria Gasteiz de Erna(n)i. Hauen osaketan Gaste eta

EL BAR Kutxi

eguneko menua

DIBUtec

Paper Berzikiak
Arte Ederretarako Materiala
Ink Jet original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkudeatzeak
Plastifikazioak
Kopiatuak
Kamietan Estampaketak

azkarprint
Inprimatze / Inprimategia
Edozein inprimaketara

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatuak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

ORTOPHONK

josune velez de mendizabal


arg.: naroa iguaran

AREITZAK, GASTEIZKO ALDE ZAHARREKO
TABERNAN HASI ZEN DUELA LAU URTE LAGUN
TALDE BAT MUSIKA EGITEN. ORDUTIK GAUZAK
ZEHARO ALDATU DIRA ETA ASMO HANDIRIK
GABE HASI ZENAK EGUN ORTOPHONK IZENA DU
ETA DAGOENEO BI DISKO KALERATU DITUZTE,
BERRIENA DUELA GUTXIKOA, "3+3" ALEGIA.



"Garai hartan Hasier Oleaga Bartzelonatik etorri berria zen eta zerbait antolatzeko gogo aipatu zidan -dio Patxeik, taldeko gitarak. Areitzak-en eskaini genuen gure lehendabiziko kontzertua edo. Orduan lau lagun ginen, dj Parrutxo, Oleaga, Victor Garcia de la Torre perkusioan eta laurok. Nik Raul Romori deitu nion, saxoa jotzen zuen eta Bostonetik etorri berria zen. Kontzertua hasita zegoela heldu zen eta saxoa jotzen hasi zen, inprobisatuz alegia. Oso gustura geratu ginen emanaldiarekin eta talde horrekin aurrera egitea pentsatu genuen baina horretarako teklatuak behar genituen eta hor sartu zen Nando de la Casa". Gasteiztarrek 2000 urtean abian jarri zuten musika taldeak laster jaso zuen kritika ona eta urte horretan Bilboko Villa de Bilbao lehiaketan parte hartzeaz gain, Tendentzia Berrien Talderik Onenaren Saria eskuratu zuten gazteek. Sari gisa, disko bat argitaratzea, Ortophonk taldearen lehendabizikoa. Oraingoan bigarrena ere atera berri dute. "Dantza egiteko, komunikatzeko eta gozatzeko musika da guk egiten duguna", diote.

Zirkuitu komertzialetan murgiltzen ez diren arren, underground giroan apurka-apurka jendearengana heldu



dira. "Gainera, diskoetxerik ez dugu lortu orain arte, baina bila jarraitzen dugu eta bitartean guk gure kasa egiten dugu 'lan zikina', je-je -azpimarratzen dute. Oso garrantzitsua da publizitatea egitea eta horretarako gu "Pegatina komandoa" gara, goazen edozein tokitara goazela horra hor gure pegata, kamerinoan, faroletan, paretetan...". Mutil hauen gogoak eta ilusioak gora daramate Ortophonk taldea.

Patxei-rekin taldeaz

Jonan Ordorika eta Nando de la Casa arduratu dira nahasketaz. Katarain estudioetan hiru egunetan grabaturiko lana da Ortophonk-ek argitaratu duen disko berria. "3+3" izenekoak hainbat berritasun dakarrela ere esan daiteke. Batetik, taldekideen artean aldaketarik egon da eta, bestetik, musika-tresna berritzaile bat ere bereiz daiteke lan berri honetako hainbat kantatan. Urrian Donostian, Bilbon eta Madrilan mugituko dute euren lana gasteiztarrek, baita beren jaioterrian ere (mementoz eta edizio hau inprentara joan orduko, data zehatzik ez zegoen). Ivan Pacheco, "Patxei" gitarrajolearekin aritu gara.



• **BIGARREN DISKO HONETAN ZENBAIT ALDAKETA EGON DIRA TALDEKIDEEI DAGOKIENEZ. ZEINTZUK DIRA ALDAKETA HORIEK?**

Orain arte bateria izan den Hasier Oleaga Donostian ari da musika ikasten eta denbora faltagatik utzi behar izan du. Bere ordeaz Nando de la Casa teklatueta aritzen zena bateria jotzera pasa da eta aldi berean, Leonel sartu da teklatueta ordezkapena egitera. Azken hau taldekide berria dugu, Venezuelatik etorria; modu zoragarrian jotzen du latin jazz delako erritmoa.

• **HORTAZ, ORAIN ARTE JORRATU EZ DITUZUEN ERRITMO BERRIAK ANTZEMAN DAITEZKE LAN HONETAN?**

Akaso bai. Nahiz eta aurreko lanaren ildotik jo, oraingoak latindarragoak, kubatarragoak direla esan daiteke. Izan ere, bertan musika-tresnek ere zerikusi handia izan dute. Iaz Kuban egon nintzen eta bidaia musika jotzeko eta hainbat musikari ezagutzeko aprobetxatu nuen. Bertan rodhes musika tresna ezagutu eta gustuko nuenez etxerako erosi nuen. Baina lokalera eraman nuenean taldekideei gustatu zitzaizen eta disko honetan erabili dugu. Gauza antzekoa gertatu zaigu orain Indian jotzen den shiddart tresnarekin... furgoneta bat erosi beharko dugu horrela jarraituz gero... kar, kar...

• **BADIRA ERE DISKO HONETAN BESTE HAINBAT MUSIKA KOLABORATZAILE, EZTA?**

Bai, guztira 6 kanta biltzen ditu lanak, lehendabiziko hirurak berriak eta gainontzekoak dj kolaboratzaileek eginiko hiru nahasketa. Hiru musika jartzaile hauek gure ezagunak dira: DJ Cubok hasieratik egin digu diseinua; Bruno Martelli Trio gure dj-a den Parrutxo eta Dardaran aritzen den Txema osatzen duten bikotea da, je-je, nahiz eta hirukote izan izenez; eta azkenik, Jabi P3z, Donostiako lagun bat. Nolabait euren kolaborazioekin gure musikaren aldeko apustua egin dute.

• **EGITASMO BERRIRIK AL DABILKIZUE BURUAN EDO GOIZEGI DA ORAINDIK?**

Gustatuko litzaiguke disko luzeago bat grabatzea, baina mementoz hau mugitu nahi dugu. Horretaz gain, diskoetxe baten bila jarraitzen dugu eta tartean guk finantziatu behar dugu gure lana.

Ortophonk NON ENTZUN - PINTXO JAM SESSIONS

Urritik aurrera Ortophonk taldeak joko berri bat proposatuko die Gasteizko musika aditu, ikasle eta musikariei. "Pintxo Jam Session" izenez hilean behin arituko da taldea Cairo tabernan. Patxei-k azaltzen duenez, "musika-ekipo txikia eramango dugu, bateria, gitarra, baxua... eta hiru gai prestatuko ditugu. Partiturak eramango ditugun arren gonbidatzen dugu musika-tresna bat jotzen duen orori bertara gerturatzerara eta gurekin inprobisatzera". Ekainean lehendabiziko saialdia izan zen eta Patxei-k dioenez, "ahoz aho zabaldu zen eta zeharo bete zen taberna". Aukera hau gutxi balitz, motibazioa alegia ondoren musikariek eta partehartzaileek gozatuko dituzten doako pintxoez eta edariaz ere etor daiteke.

VIENA, artez jositako hiria

Ezaugarriak. Vienen sartu bezain pronto, batez ere bere erdialdean, eraikinek atentzioa emango dizute. Ipuin batean bazina bezala sentituko zara. Jauregi barrokoak, eraikin historikoak eta museoak zure inguruan dantzatuko dira, dena oso era antolatu eta garbian. Hori bai, deigarriena espazio irekiak eta eraikin artean dauden parke eta plazak dira.

Zonaldeak oso ondo desberdintzen dira: alde batetik, inperioak eraginiko lilura; Erdi Aroko zonaldea (Danubio ibaiaren ondoan); eta langileen auzoak beren etxe ezagunekin.

Datuak

Austriako hiriburua
Biztanleria: 1.750.000
Hizkuntza: Alemaniera
Txanpona: Euroa
Garraioak: Metroa, autobusa eta tranbiak bilete komuna daukate eta ibilbide osorako balio du (aldaketak barne).

Hofburg

Normala denez izan zuten inperioagatik Viena hiriak gauza asko dauka ikusteko, baina guztien gainetik Hofburg Kortearen Gaztelua dago; zonalde berezi hau lorategi, plaza eta museo beteta dago; 240.000 metro karratu baino gehiagoko lorategiak dira. Jauregia bisita dezakezu eta barruan inperioko apartamentuak, bulegoak edo logelak ikusiko dituzu. Eta azpimarratzekoa, Museumsquartier, bere garaian enperadorearen 600 zaldiak eta 200 gurdiak gordetzeko erabilitako eraikina; egun museo betetako zentroa da. Gaur egungo artea ulertzeko ezinbestekoa.

Alde zaharra (Innenstadt)


Viena hiri lasaia da, ez ordea erdialdea; hor denetik aurki dezakezu. Katedralaren plaza (Stephansplatz) elkartze lekua da; hor San Esteban katedrala ikus dezakezu. Bere inguruan hainbat oinezkoen kale zabaltzen dira, denda, taberna eta jatetxez josiak; baita kaletxoak ere, miragarri eta deigarriak, gehienak katedralaren atzealdean.

Ringstrasse

Hau da enperadoreak eraikitzeko agindu hiribidea, dena bere gustura, eta hori oraindik giroan nabaritzen da. Eratzun bat egiten du erdialdea borobiltzen. Bost zati desberdinetan banatzen da, bata nobleentzat, beste batean hotel handiak kokatzen dira, beste batean jauregi eta lorategiak... Oso interesgarria da oinez egitea, baina horrela eman ditzakezu egunak eta egunak; aukeratu ondo..., eta ez galdu jarraian dagoen Ring atzealdeko plaza handia: Karlsplatz.

Araba bixotzian

Jon Zubiaur



Bertakoari so!



ERLANTZ URTASUNen
txokoa

Euskal Estatuaren Sorrera

Geu-ren eskutik, urriaren 20an, asteazkenarekin, Nabarralde hitzaldia eskainiren du arabar hiriburuan. Gaia? Honako hau: duela 1000 urte ez zen egungo herrialderik. Euskalkien artean, halere, batasun handiagoa atzematen zen. Horrela, euskalkien mapak hagitzek lotura estuagoa zuen orduko jendearen harreman sozioekonomikoekin egungo herrialdeen mapak erakusten duena baino. Halaber, Hegoalde-Iparraldeaz mintzatzeak zentzurik ez zuen hartan, mugak ez ziren frontera. Jentil, kristau, judu edota musulmanek hizkuntza bera mihian, euskaldun gehienak Iruñeari so bizi ziren.

Euskal Estatuaren sorreran eragin handiko gertakariak ezagutzen dira, Orreagako kasu. Europa kristauaren sistema politikoaren garaipenarekin baterat, Europako Mendebaldeko Erdi Aroko eredu sozioekonomikoak, urratsez urrats, gero eta tarte handiagoa irabazi zuen euskaldunen lurraldeetan. Halere, testuinguru historiko hartan, gure arbasoek, Wasconiako errautsetatik, Iruñeko erresuma tipia eraiki ahal izan zuten, frankoen lurralde soil bihurtze prozesua ekidinez.

Nola bizi zen, baina, bertoko jende xumea? Zer zioten, haatik, gure arbasoek? Ez dakigu. Nola ulertu, orduan, haien pentsaera? Nor zen Eneko Aritza, balizko lehen errege hura? Nongoa? Zein zen haren gogoia? Zer ikasi zuen bere amaxirengandik? Zer erakutsi zion bere bilobari? Marirengan sinisten zuen? Alarengan fedea zuen? Elizkoia zen? Hirurak baterat, apika, edota gehiago, juduak nonahi.

Zenbat doinu eta dantza euskal kuxtaren maindira artean! Zintzoki aitortu dezagun, deus ere ez dakigu garai hartaz, baina hainbat iradokizun egiten saiatuena gara. Ordura arte!

Urriak 20, 20.00etan.

Betolatza aretoan (Montehermoso)

GAMARRAKO OSTALARITZA ESKOLA

ITSAS-ZAPO ERREA BERE ZUKU EMULTSIO ETA GARAICO BARAZKIEKIN

Prestaketa

- Itsas-zapoa garbitu eta behar bezala txukundu ondoren, bi solomotan zatitu, hezurra gorde, eta bi solomoak 150 gr inguruko medailoietan zatitu, forma emanaz.
- Oliba olio suta jarri, berakatz xerrak eta pipermina gehitu eta gorritzen hasten direnean itzali. Baztertu bai berakatz eta pipermina, eta olio epeltzen denean zapo hezur zatituak bertan jarri, su moteletan. Utzi poliki-poliki pare bat minutuz irakiten, ondoren sutatik atera, eta hasi pil-pilean, poliki-poliki eraginez

Osagaiak

- Itsas-zapoa
- Oliba olio
- Berakatz xerratan
- Pipermina
- Gatza
- Ardo zuria
- Arrain salda

Hornigaia

- Ilar freskoak (apirila)
- Baba freskoak (apirila)
- Urdaiazpikoa
- Oliba olio
- Perrexila



saltsa muntatzen. Gatzez atundu eta nahiz eta lodi samarra gelditu, utzi amaieran konpontzeko.

- Ilarrak eta babak, bakoitza bere aldetik, ur irakinetan egosi 5 bat minutuz, ondo xukatu, eta gorde.
- Urdaiazpikoa xehe-xehe txikitu.
- Zartagin bero batean, eta oliba olio apur baten laguntzaz, urdaiazpikoa, ilarrak eta babak salteatu.
- Oliba olio apur batean berakatz ale batzuk gorritu, atera aleak bertatik, epeltzen denean perrexil fresko apur bat bertan jaurti, eta tourmixaz ondo birrindu, iragaztontzitik pasatu, burduntzali baten laguntzaz ondo zanpatuz.

• Itsas-zapo medailoiak, gatzez atundu ondoren, plantxan bi aldetatik gorritu, ondoren azpil batean jarri, ardo zuria pixka bat eta arrain salda apur bat bota gainetik, eta 180°Ctan sartu labeen 5-10 bat minutuz.

• Azpilean gelditutako zukua, gehitu lehen egindako pil-pilari, poliki-poliki, saltsa gehiegi mehetu gabe.

Plateraren muntatzea

• Plateraren erdian zapo medailoia jarri, bere inguruan barazkiak, saltsa apur bota medailoia gainetik, plater jira perrexilez atondutako olio apaindu, eta perrexil hosto batekin amaitu.

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

IKASTURTE BERRIAREN HASIERAREKIN BATERA **GEU ELKARTEAK** EUSKARAZ GAUZATURIKO HAINBAT EKINTZA ABIAN JARRI DITU, HALA NOLA, ETA OHIKOEN ARTEAN, **KULTUR ERROTA** EDOTA **GEUREKIN MENDIRA** IZENEKOAK. GUREAN ERE INDARTU DEN BESTELAKO BAT **GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA** DUGU. LITERATURAZ TALDEAN GOZATZEKO HILEAN BEHIN ESKAINTZEN DIZUGUN PARADA ATSEGINA. **IBAN ZALDUA** IDAZLEAREN ESKUTIK LIBURU ETA EGILE INTERESGARRIENAK IZANGO DIRA AURTEN ERE EZTABAIDAGAI.

Iban Zalduarekin Irakurle Klubaz



AURTENGOA GASTEIZKO IRAKURLE KLUBEKO III. EDIZIOA DUGU, BERRITASUNIK BAI?

Funtsean ez, erritmo eta plan berarekin jarraituko dugu, liburu bat hilero. Tira, aurtan antzerki-lan baten testua komentatuko dugu lehenengoz, eta bilerak, asteazkenean izan beharrean, ostegunetan izango dira, hilaren azkeneko ostegunetan, baina horretaz aparte, betikoa egingo dugu: hilean behin liburu baten inguruan hitz egin eta, batzuetan, liburuaren egilearekin eztabaidatu.

NOLAKO HARRERA IZAN DU ORAIN ARTE EKINTZA HONEK?

Tira, ez naiz ni egokiena hau esateko, baina nire bibrazioak onak dira (bestela ez nuke jarraituko hemen, noski). Taldea finkatu dela esango nuke (hamar-hamabost bat bildu izan gara pasa den ikasturtean), eta eztabaidak nahikoa biziak izan dira: irakurleen ekarpena anitza eta aberasgarria izan da benetan.

HORTAZ, ESAN GENEZAKE GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA SENDOTURIKO EKINTZA BAT DELA?

Nik pentsatzen dut baietz. Gurea bezalako hirian, daukan tamainuarekin, gure hiztun kopuruarekin, Letretako fakultate batekin etab., nik uste dut euskarazko irakurle txoko bat baino gehiago existitzeko aukera egongo litzatekeela.

NOLA SORTU ZEN IDEIA HAU? ZERBAITEN PREMIA ASETZEKO OTU AL ZEN EKINTZA HAU?

GEUtik iritsi zitzaidan halako talde bat dinamizatzeko proposamena, eta niri interesgarria iruditu zitzaidan. Beste leku batzuetan jada funtzionatzen ari ziren, euskaraz, eta erdarazkoen ereduaren genuen, hiri honetan bertan. Esperientzia polita da, irakurlearen mundua, berez, bakartia delako, bakardadean irakurtzen ohi ditugu liburuak, baina, bestalde, irakurleok ere nolabaiteko komunitate bat osatzen dugu, isilpeko komunitate bat, eta irakurle

klubak edo txokoak komunitate "birtual" hori harremanetan jartzeko modu bat dira, nire ustez. Nik, behintzat, asko ikasi dut irakurle bezala, azkeneko bi urte hauetan.

IDAZLE ETA ITZULTZAILEAK GONBIDATZEAK ZER GEHITZEN DU? HOTS, IRAKURLEA

GEHIAGO MOTIBATZEN AL DU BERE KEZKAK IDAZLEAK BERAK ASETU AHAL IZATEAK?

Benoa, batzuetan idazlea ezagutzea okerrago izan daiteke, ezta? Ez, baina seriotan, nik uste dut aberasgarria dela, oro har, idazlearekin zuzenean hitz egin ahal izatea, ezinbestekoa ez bada ere: beste perspektiba bat eskaini dezake. Edonola ere, idazlea gonbidatzen dugunean, beti etortzen da bilera hasi eta ordu erdira edo hiru ordu laurdenera, jendea kikildu ez dadin. Ze gerta daiteke liburuarekin arazoren bat izatea, eta zaila da hori idazleari zuzenean planteatzea (hala ere, gurean gertatu da inoiz). Beranduago etorraziz, saihesten dugu, hein batean, arazo hori.

ZEREN ARABERA LOTU DUZU AURTENGO IKASKURTEKO LIBURUEN ZERRENDA?

Betiko irizpideetan: alde batetik, genero ezberdinen arteko nolabaiteko oreka bat lortzea, nobelak nagusi izaten jarraitzen badu ere; bestetik, jatorrizko lanak eta itzulpenak konbinatzea; hirugarrenik, berritasunak egotea baina baita horren "berriak" ez diren liburuak; azkenik, kontuan hartzen saiatu naiz pasa den urtearen amaieran klubeko partaideek egin zituzten izenburu-eskaerak. Zerrenda polita osatu dugula iruditzen zait.

josune veleaz de mendizabal



GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

2004/05

Irailaren 30a, osteguna

Sarrera-hitzaldia.

Josemari Iturralde: "Idazle baten nekeak eta pozak idazterakoan".

Urriaren 28a, osteguna

Juanjo Olasagarre, Ezinezko male-tak, Susa 2004.

Azaroaren 25a, osteguna

Jim Thompson, 1280 arima, Elkar 1986.

Abenduaren 16a, osteguna

Anjel Erro, Eta Harkadian ni, Elkar 2002.

Urtarrilaren 27a, osteguna

Pedro Alberdi, Satorrak baino lurpe-
rago, Alberdania 2000.

Otsailaren 24a, osteguna

Jorge Luis Borges, Ipuin hautatuak,
Ibaizabal 1998.

Martxoaren 17a, osteguna

Pello Lizarralde, Sargori, Pamiela 1994.

Apirilaren 21a, osteguna

Oscar Wilde, Fidel izan beharraz,
Ibaizabal 2000.

Maiatzaren 26a, osteguna

Ur Apalategi, Gure Gauzak S.A.,
Utriusque Vasconiae 2004.

Ekainaren 30a, osteguna

Ramon Saizarbitoria, Gorde nazazu
lurpean, Erein 2000.

LEKUA: Hikaateneoa, Pintore kalea 13.

ORDUA: 20.00

GEUREKIN MENDIRA

Urriaren 24an. GABOÑO ARTIA (1175m) (goizekoa)
Arduraduna: Maite 945282316. Irteera: goizeko 9.00etan Lovainan

2004-2005 URTEKO EGITARAUA

Goizeko 9.00etan Lovaina plazatik

Azaroaren 21ean

Dulantz (1239m)

Abenduaren 19an

Txulato (946m)

Urtarrilaren 16an

Saibi (946), Errialtabaso (1018m)

Otsailaren 20an

Flor, Umiön (1434m)

Martxoaren 13an

Muela (1055m)

Apirilaren 17an

Areetzako trikuharriak (983m)

Maiatzaren 15ean

Anboto (1331m)

Ekainaren 26an

Joar (1416m)



TALDE BERRIA TALDE BERRIA TALDE BERRIA TALDE

GEUREKIN MENDIRA
GAZTE TALDEAREN II. IRTEERA
BERIAIN (SAN DONATO)
URRIAREN 31n. Autobusez
Informazioa: 635 701 536 (Gorka)

KULTUR ERROTA

URRIAK 26 (asteartea)

ANTTON IRUSTA ipuin kontalaria

Herri desberdinetako ipuin herrikoietatik zeharreko ibilbidea

20.30etan, PARRAL tabernan

HITZALDI MULTIMEDIA

GEU aldizkaria & GEU elkarte & Nabarralde

URRIAK 20, ASTEAZKENA

EUSKAL ESTATUAREN SORRERA,

ERLANTZ URTASUN historiagilearen eskutik

Montehermoso Kulturunean, Betolatza aretoan, 20.00etan

KANGEUROAK

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu
zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es

Aldi berean, zerrendan agertu nahi ez baduzu, abisua eman.

AUKERAK

• Ordutegi guztiak • Goizez • Arratsaldez. Nerea. 658 733 934

• Gauetz. Nerea. 658 733 934

• Asteburuak. Nagore. 945 281 124

Gau batez (afariak, ezkontzak,...)



Arabako Unibertsitateko pabilioian.
Behar duzun bibliografia eta materiala dugu deskontu onenean: %5 liburuetan,
%5 informatikarako materialean, %10 musikan eta %20 papererian.

Teknologia · Artea · Historia · Geografia · Antropologia · Ekonomi Zientziak · Filosofia ·
 Gizarte Zientziak · Literatura · Hizkuntzalaritza · Filologia Erromanikoa · Filologia Klasikoa ·
 Ingeles Filologia · Frantses Filologia · Alemaniar Filologia · Euskal Filologia · Saiakera



ZURE UNIBERTSITATE - LIBURUDENDA



Apraiztarrak 1 · Unibertsitate Pabilioia · Tel. 945 14 16 70 · Fax: 945 13 56 56 · Barne Luzapena 4291 · arriagacampus@teleline.es · 01006 Vitoria-Gasteiz



Gasteiz Hiria Herri Lasterketa

**V GASTEIZ
 HIRIA
 herri
 lasterketa**

BAGARE-K, BERRIA REKIN BATERA, ANTOLATZEN DUEN LASTERKETA HAU
URRIAREN 17AN IZANGO DA ETA **BOLUNTARIOAK** BEHAR DIRA

BIDEGURUTZEAK ZAINTEZKO. EMAN ZURE IZENA ETA TELEFONOA BAGAREN.

945 251 084

berria



GEU ALDIZKARIA-GEU ELKARTEA & NABARRALDE ekimenaren eskutik



HITZALDIAK-2004

**MONTEHERMOSO KULTURUNEAN
BETOLATZA ARETOAN**

20.00etan

URRIAK 20, ASTEAZKENA

HITZALDI MULTIMEDIA:

EUSKAL ESTATUAREN SORRERA. ERLANTZ URTASUN.

AZAROAK 17, ASTEAZKENA

HITZALDI MULTIMEDIA:

1000. URTEKO EUSKALDUNAK. ERLANTZ URTASUN.

ABENDUAK 14, ASTEARTEA

HERRI KIROLA & SOLASALDIA:

IÑAKI PERURENA: "50 ALTXALDI, 50 GALDERA".

www.nabarralde.com / info@nabarralde.com / geugaste@grn.es / geuelkartea@grn.es

Obra Social

Caja Vital  Vital Kutxa

Gizarte-Ekintza